



ikuspegi@k

Gizarte Gaien Behatokiak
Observatorios de Asuntos Sociales

Familia behatokia
Observatorio de Familia

EUSKAL AUTONOMIA
ERKIDEGOKO GURASOTASUN
PROGRAMEN ETA
JARDUEREN LANDA-LANA



“EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GURASOTASUN PROGRAMEN ETA JARDUEREN LANDA-LANA”

EUSKO JAURLARITZA-GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIEN SAILA / DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES

FAMILIA ETA KOMUNITATE POLITIKARAKO ZUZENDARITZA / DIRECCIÓN DE POLÍTICA FAMILIAR Y
COMUNITARIA

Txostenaren egilea: *ETXADI*, Familia-Psikologia Unibertsitate-Zentroa (www.etxadi.org)

Aholkularitza zientifikoa eta teknikoa: *HAEZI* /UPV-EHU (www.ehu.es/haezi)



Gasteiz, 2012ko ekaina

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO GURASOTASUN PROGRAMEN ETA JARDUEREN LANDA-LANA

AURKIBIDEA

Hitzaurrea	4
1. Atarikoa	5
2. Gurasotasunaren oinarriak	8
3. Gurasotasun politikak martxan jartzeko justifikazio zientifikoa	10
4. Gurasotasun gaitasunak, haien transmisioa eta ebaluazioa	20
5. Ikerketaren prozedura	23
6. Emaitzak, ebaluazioak eta gomendioak	32
7. Ikerketaren mugak eta indarguneak. Aurrera begirako ekintzak	56
8. Gurasotasun politikak ebaluatzeko eta inplementatzeko adierazpenen proposamena	57
9. Gurasotasunerako Curriculum Optimoa (GCO)	60
10. Erreferentzia bibliografikoak	67
I. eranskina: Proiektuaren aurkezpen-gutun ofiziala (EJ/GV)	73
II. eranskina: Datuak biltzeko protokoloa	75
III. eranskina: Programen zerrenda	81



HITZAURREA

Txosten honetan, Euskal Autonomia Erkidegoaren (EAE) lurralde-esparruko “*gurasotasun positiboko*”¹ programak eta jarduerak identifikatzeko eta ebaluatzeko egindako azterlan bateko datuak bildu dira. Datu horiekin batera, txostenak informazio sistematikoa eman nahi du gurasotasunaren oinarriei, praktikari eta ebaluazioari buruz, Europako Kontseiluak estatu kideei emandako 19. Gomendioa oinarri hartuta (2006). Atarikoan, gurasotasunaren praktikari atxikitako tokiko eta nazioarteko esparruen aurkezpena egingo da, Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren garapen modura (Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza, 2011). Ondoren, bigarren atalean, gurasotasunaren ikuspegiari loturiko irizpide teknikoak eta definizio kontzeptuala zehaztuko dira. Hirugarren atalean, gurasotasunaren praktikaren justifikazio zientifikoa azalduko dugu, honako hauek ardatz hartuta: familia-testuinguruak haurren eta nerabeen garapen psikologikoan duen eraginari buruz EAEko nahiz nazioarteko laginetatik ateratako ebidentzia enpirikoak, gurasotasun-programak ezartzearen baliagarritasunaren ebidentzia eta, azkenik, gurasotasun jarduerak bideratzea gomendatzen duten EAEko datu demografikoak eta erlazionalak.

Laugarren atalean, era honetako programak behar bezala inplementatzeko gaitasunen hizkuntza formala erabiltzearen egokitasunaz jardungo dugu. Bosgarren eta seigarren ataletan, ikerketaren prozedura eta emaitzak aditzera emango dira eta aztergai hartu dugun eremuan programen aplikazioaren praktika hobetzeko gomendio batzuk atxiki zaizkio emaitzen ebaluazioari. Lanaren amaieran, azkenik, laburpenerako proposamenak bildu dira: *Gurasotasun Programak Ebaluatzeko eta Inplementatzeko Adierazle-sistema* eta *Gurasotasunerako Curriculum Optimoa (GCO)*.

¹ OHARRA: hemendik aurrera, ingeleraz literatura zientifikoa azken urteotan finkatu den “positive parenting” kontzeptua euskaraz adierazteko “gurasotasun” hitza erabiliko da, gurasoen kalidadeak eta berezko ezaugarri positiboak hitz horren ardatzean aurkitzen direlako. Era berean, euskarazko hitz honek guraso bien, bikote kideen edota guraso bakarraren jarduerak adierazten ditu, genero-diskriminaziorik gabe.

1. ATARIKOA

Txosten honetan, Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak Universidad del País Vasco/Eukal Herriko Unibertsitateko *Haezi-Etxadi* lantaldeari eskatutako azterlanaren emaitzak bildu dira. Hain zuzen ere, gurasotasun jardueren eta programen inbentarioa egitea zen eskatutakoa, Eusko Jaurlaritzak 2011-12-27an onartutako *Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planaren* (2011-2015) exekuzioaren testuinguruan, betiere (Eusko Jaurlaritzak, 2011a).

Erakunde-arteko plangintza horrek EAEko familien egoerari buruzko zenbait dokumentu ditu oinarri, besteak beste, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaien Sailak egindako *Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planerako Diagnostikoa* (2011b). Beste dokumentu batzuetako datuak ere baditu, hala nola *EAEko Haur eta Nerabeen Errealitatearen Jarraipena egiteko Adierazle Sistemakoak* (Eusko Jaurlaritzak, 2010a), *EAEko Haur eta Nerabeen Premia eta Eskakizunetara Hurbiltzeko Ikerketakoak* (Eusko Jaurlaritzak, 2010b) eta, azkenik, *EAEko Haur eta Nerabeen Egoeraren Diagnostikoa* (Eusko Jaurlaritzak, 2011c). Aipatu ditugun azken hiru dokumentuen egilea *Ikuspegiak* da (Gizarte Gaietako Behatokia), Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren mendekoa.

Dokumentu horien datuen azterketatik abiatuta, gurasotasunari buruzko beste neurri osagarri batzuk txertatu dira *Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Planean* (Eusko Jaurlaritzak, 2011a), beste laguntza-neurri batzuen osagarri, esaterako, familia eta lana uztartzeko laguntzen osagarri. Adibidez, 79. ekintza honetan datza: "Familia-eredu berrien, gurasotasunaren, erantzunkidetasunaren eta bateratzearen inguruko kanpainen garapena gazteen artean, hala nola familia barneko indarkeriaren prebentziorako, bereziki genero-indarkeriarekin, umeen tratu txarrekin eta seme-alaba eta guraso arteko indarkeriarekin lotutakoak (Eusko Jaurlaritzak, 2011a, 153. or.). 99. ekintzan, berriz, zera esaten da: "Gurasoei zuzendutako erditzeko prestakuntza programetan, hazkuntzarekin, gurasoak izatearen garrantzi afektiboarekin eta familia bat osatzeko garrantziarekin erlazionatutako edukien barneraketa" (Eusko Jaurlaritzak, 2011a, 162. or.).

Ildo beretik, aipatzekoa da plan horren beraren 101. ekintzaren proposamena: "Gurasotasun programen garapena, trebetasunak eta gaitasunak garatzeko. 1.a, 2011n EAEn



gurasotasunaren inguruan garatzen diren ekimenen identifikazioa eta ebaluazioa; 2.a, 2012an ebidentzia zientifikoan oinarritutako gurasoen garapenerako proposamen berriak eratzea; 3.a, 2013an, eragile zientifikoekin batera eta profesionalen eskura dagoen gurasotasun baliabideen banku bat martxan jartzea; 4.a, 2013an eta 2014an gurasotasun programa bat egitea eta programa ezberdinak zabaltzea” (Eusko Jaurlaritza, 2011a, 163. or.).

Erakunde Arteko III. Planean familiei laguntzeko eta orientazioa emateko jarduerak garatzeko planteatutako beste neurri batzuk ere badira gurasotasunaren esparruan sartzen direnak. Besteak beste, familia-aniztasunaren inguruko laguntzari eta integrazioari buruzkoak (85. neurria), genero-rolen aldaketa sustatzeari begirakoak (94. neurria), familiek arlo askotan prebentzio-lana gauzatzeko duten ahalmenari buruzko sentsibilizazioarekin zerikusia dutenak (98. neurria) eta orientaziorako eta bitartekaritzarako zerbitzuen garapenari buruzkoak (102. eta 103. neurriak). Era berean, adierazgarriak dira arrisku-taldeekin eta herritarrekin oro har gurasotasun-gaitasunak garatzea helburu dutenak (107. neurria) eta arriskuan dauden familiei hautemateko prebentziozko ekintzekin loturikoak (161. neurria). Azkenik, aipatzekoak dira EAEko familien babes-faktoreei eta arrisku-faktoreei buruzko ikerketak garatzeari begirakoak (140. neurria) eta familientzako prebentzio- eta hezkuntza-ekintzarako baliabideen bankua sortzeko neurria (141. neurria). Gurasotasunaren praktikaren sakoneko filosofiak ahalik eta familia gehienetara iristeko prebentzio primarioko politikak inplementatzea aldarrikatzen du.

Gurasotasunaren ekintza politikoaren testuingururik zabalena Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen 19. Gomendioarena da. Gomendio horretan, estatu kideei dei egiten zaie gurasotasuna positiboki garatzen laguntzeko politikak ezartzeko (2006), eta haxe du helburuetako bat: “Estatu kideek gurasotasuna gauzatzeko laguntzeko baldintzak sortzea, haurrak hezi behar dituzten pertsona guztiek baliabide egokiak eskura izan ditzaten (materialak, psikologikoak, sozialak eta kulturalak) eta jarrera eta eredu sozial hedatuenak seme-alabak dituzten familien eta gurasoen premiei egokituak izan daitezten” (19. Gomendioa, 3. or.).

Espainiako Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak Europako Kontseiluaren 19. Gomendioa garatu du, azken urteetan, eta hainbat ekimen bideratu ditu gurasotasunaren esparruan. Horien artean, aipatzekoak dira honako dokumentu hauek: *Parentalidad positiva y políticas locales de apoyo a las familias* (Rodrigo, Maiquez eta



Martín, 2010a) eta *La educación parental como recurso psicoeducativo para promover la parentalidad positiva* (Rodrigo, Maiquez eta Martín, 2010b). Espainiako Udalerri eta Probintzien Federazioarekin lankidetzan osatu dira bi dokumentuak.



2. GURASOTASUNAREN OINARRIAK

Arestian aipatutako dokumentuetatik abiatuta –benetan gomendatzekoa da horiek arretaz irakurtzea–, gurasotasun kontzeptuak eta printzipioak azalduko ditugu atal honetan. Familiaren funtzioak instituzionalizatzen ari diren garai honetan (Flaquer, 1998, 1999) eta herritarren hezkuntzaren ardura administrazioek beren gain dutelarik –gizarte hezkuntza deritzona- paradoxikoa da gizarte-politiken xedea izatea familiak pertsonen garapen psikologiko osasungarrirako babes-inguru gisa duten eginkizuna berreskuratzea edo eginkizun hori berriro beren gain hartzea. Joera horretatik eratorri dira *jabekuntza* (ingelesez, *empowerment*) sustatzen duten nazioarteko politikak, hau da, familiei babes- eta heziketa-funtzioan laguntzeko helburua dutenak. Familiaren esparruko ikerketa sistematikoaren emaitzek berretsi egin dute pertsonen sustapen osasungarrian familiek funtzio ordezkazina betetzen dutela dioen hipotesia; agian horregatik diote zenbait adituk familia gizartearen laguntzaren premia duen ondare publikoa dela (Rodrigo et al., 2010).

“Gurasotasuna” kontzeptua definitzeko, funtsezko alderdia da haren izaera unibertzala. Adituek diotenez, guraso guztiek behar dute laguntza beren gurasotasun-eginkizunak behar bezala garatzeko. Horren arabera, ekintza ez litzateke bideratu behar arrisku-familia edo arrisku-talde deritzen horietara soilik: ekintzen bidez, familia guztiei begirako prebentzio primarioa eta osasun publikoko planteamendu bat egin beharko litzateke. Familiek beren kideen garapen osasungarria sustatzeko eginkizun hori betetzeko beharrezko ezagutza eta laguntza guztiez jabetu behar dute.

Europako Kontseiluko Ministro Batzordearen 19. Gomendioak, estatu kideei gurasotasunerako ekimen positiboa laguntzeko politikak abian jartzeko eskatzen dien horrek (2006), printzipio hauek biltzen ditu, besteak beste: “Gurasotasuna, gurasoek seme-alaben zaintzarekin eta hezkuntzarekin loturik betetzen dituzten funtzio guztiak barne hartzen ditu. Gurasotasuna gauzatzeak gurasoen eta seme-alaben arteko elkarreragina du ardatz, eta haurraren garapen eta errealizatorako eskubide eta betebeharrak dakartza atxikita. Era berean, gurasoen jarrera haurraren interes gailenean oinarritzea eskatzen du, zaintza eta gaitasunen garapena bideratzea, indarkeriarik gabe, eta aitortza eta orientazioa ematea, mugak ezartzea barne, haurraren osoko garapena ahalbidetzeko” (19. Gomendioa, 3. or.).



Azken batean, gurasotasunak zera esan nahi du: gurasoei seme-alabak hezteko gaitasuna emateari begirako hezkuntza-ekintza eta esku-hartze tradizionalei politika- eta hezkuntza-bultzada ematea eta jarduera horiek berreskuratzea.



3. GURASOTASUN POLITIKAK MARTXAN JARTZEAREN JUSTIFIKAZIO ZIENTIFIKOA

Gurasotasun politikak abian jartzeak zentzua du, lehenik eta behin, familia-testuinguruak garapen psikologikoan duen eragina erakusten duen ebidentzia enpirikoa kontuan hartuta; ebidentzia horren parte bat EAEn egindako ikerketetan lortu da, baita familiaren aldagai jakin batzuk bizitza-zikloan egokitzapen-arazoak eta patologiak garatzearekin lotzen dituzten datuetan ere eta, orobat, mendekotasun egoeran dauden seme-alabak dituzten EAeko familiei buruzko ebidentzietan eta gurasotasun-gaitasunak garatzeko programa askok erakutsitako eraginkortasunean (Asmussen, 2011). Labur azalduta, gurasotasun politikek zentzua dute familia-inguruneke babes-faktoreak sendotzen eta arrisku-faktoreak murrizten edo arintzen dituzten heinean. Jarraian, aipatutako esparru horietako datu adierazgarrienen berri emango dugu.

Gurasotasun politikak garatzeko oinarri zientifikoa kalitatezko familia-ingurune batek pertsonen garapen psikologiko osasungarrian eragin erabakigarria duela erakusten duten ikerketen corpusak osatzen du (Arranz, 2004, 2005). Laburpen hau egiteko, Arranz eta Oliva (2010) eta Oliva eta Arranz (2011) egileen lanei jarraituko zaie, oinarrizko ikerketa-iturri gisa.

Garapen kognitiboari dagokionez, aipatzekoak dira familia-testuinguruen ebaluaziorako HOME eskalaren bidez lorturiko emaitzak (Caldwell eta Bradley, 1984). Eskala horren bidez, testuinguruari buruzko kalitate-irizpide hauek ebalua daitezke: *ingurune fisikoa* (auzoko eta etxeko segurtasuna, jolaserako eskolako lana garatzeko espazioak), *ikaskuntza-materialak* (etxean eskolako jarduerak egiteko liburuak eta lanabesak izatea), *estimulazio akademikoa* (gurasoen seme-alaben errendimendu akademikoari buruz duten interesa eta motibazioa), *hizkuntza-estimulazioa* (hizkuntza-estimulazioaren eta hizkuntza-interakzioen kopurua eta kalitatea, gurasoen maila gramatikala, etab.), *esperientzien aniztasuna* (hurrek etxean eta etxetik kanpo jasotako estimuluen aniztasuna, bidaiak, bisita kulturalak), *heldutasun soziala modelatzea eta estimulatzea* (eguneroko bizitzaren antolaketa, telebistaren erabilera, iritzien eta emozioen adierazkortasuna, etab.), *onarpena* (zigor fisikorik eza, erruduntasunik eza) eta *harrotasuna, afektua, samurtasuna* (afektuaren adierazpen fisikoa eta hitzezkoa, haurra goraiatzea). 8 urteko haurrak dituzten EAeko 500 familiako lagin batekin egindako lanek agerian utzi dutenez, estu lotuta daude HOME eskalak



ebaluatutako familia-testuinguruaren kalitatea eta garapen kognitiboa (Arranz et al, 2008, 2010).

Haurren garapen kognitiboan eragina dute, halaber, Pettit, Bates eta Dodgeren (1997) eskalaren bidez ebaluatzen diren familia-testuinguruaren kalitateari buruzko aldagai hauek: *familiaren egoera orokorra* (diru-sarrerak, estresa eragiten duten gertaerak, lan-egonkortasuna, etab.), *haurrak familian duen eragina* (haurra jaio ondorengo familia-bizitzaren berrantolaketari buruzko egokitzapen positiboa), *ordezko zaintzaren kalitatea eta sendotasuna* (ordezko zaintza mota eta egonkortasuna), *haurrak beste haurrekin dituen harremanen kalitatea eta sendotasuna* (haurraren adiskideak eta haiekiko harremanen egonkortasuna), *gurasoek seme-alaben gizartekoitasunari buruz duten interesa* (gurasoek seme-alaben gizarte-harremanak sustatzeko egiten dituzten jarduerak), *zigor-diziplinaren erabilera* (zigor-metodo zorrotz eta autoritarioen erabilera), *min fiskoaren presentzia* (abusuen eta tratu txarren ebidentzia), *bikotekideen arteko liskarrak* (bikotearen harremanaren kalitatea), *etxeko eta etxetik kanpoko gatazkak* (bestelako barne-gatazka batzuk eta auzoko eta ingurune hurbilekoak), *familia- eta gizarte-sarearen laguntza* (familia zabalaren eta bestelako zerbitzu batzuen laguntza), *estresa eragiten duten gertaerak* (familiaren egonkortasuna aztoratzen duten gertaerak: motak eta maiztasuna) eta *kontrola* (gurasoek familiaren egoeraren gainean duten kontrola).

Familiaren estatus sozioekonomikoak garapen kognitiboan aparteko eragina duela identifikatu da (Bradley eta Corwyn, 2002). Aipatzekoa da, halaber, garapen kognitiboan gora egiteko zenbaterainoko eragina duten *euskarri* moduko elkarreraginek, hau da, euskarri modura diharduten errepikapenek, sinplifikazioek eta bestelako jarduerak. Horien artean, honako hauek nabarmendu zituen Gonzálezek (1996): haurrari unean uneko denbora-espaziotik kanpoko gertaerak, pertsonak eta egoerak gogorarazten laguntzen dioten estrategiak, testuingurutik kanpora jotzeko estrategiak. Galende, Sánchez eta Arranz (2011a) egileek berriki gauzatutako lan batek agerian utzi du EAEko 5 urteko haurren lagin batean euskarri-jarduerak zer-nolako garrantzia zuten Gogamenaren Teoria garatzeko. Ikerketatalde horrek berak (Galende, Sánchez eta Arranz, 2011b) honako eragile hauek garapen kognitiboan duten eragin nabarmena identifikatu dute: ordezko zaintzaren kalitatea, haurren gizarte-harremanen kalitatea eta etxebizitzako ingurune fisikoaren kalitatea.



Jolasak –mota orotakoek, baina, bereziki, jolas sinbolikoak– garapen kognitiborako funtsezko elkarreragina dakar. Era berean, eragin handia dute gurasoen *sentiberatasuna* deritzonak, amak haurren arretari eusteko erabiltzen dituen estrategiek (Landry, Smith, Swak eta Miller–Loncar, 2000) eta gurasoek familiako elkarreraginean trebetasun metakognitiboen gainean praktikatzen dituzten estimulazioen maiztasuna (Thomson eta Williams, 2006). Gurasoen erantzunaren kalitateak barne hartzen du aitak eta amak elkarreraginean duten inplikazioa; inplikazio horretan, era berean, erabateko eragina dute gurasoen hezkuntza-mailak eta diru-sarrek, eta eragin positiboa du garapen kognitiboan (Tamis–Le Monda, Shannon, Cabrera eta Lamb, 2004).

Familia-elkarreraginaren kalitatea hizkuntza-garapenean ere sumatzen da, honako alderdi hauen bidez, esaterako: ama-hizkuntzaren konplexutasuna eta egitura eta ipuinen irakurketa, hiztegiaren eta hizkuntza-gaitasunaren garapenarekin uztartu ohi dena (Huttenlocher et al, 1991). Irakurtzen eta idazten ikasteen ere (eta horiek dira errendimendu akademikoaren oinarriak) eragiten dute familia-testuinguruko aldagaiek, hala nola, autonomiaren eta autoerregulazioaren sustapenak, kontrolak eta goxotasunak (Morrison eta Cooney, 2002; Saracho eta Spodek, 2001).

Gogamenaren Teoriako (TOM) –bestearen gogamena irudikatzeko eta eguneroko bizitzako egokitzapenetan eraginkortasunez erabiltzeko gaitasuna– haur-gaitasunak familia-testuinguruaren kalitateari lotuta daude, eta atxikimendu segurua da hura iragartzen duten aldagaietako bat (Arranz, Artamendi, Olabarrieta eta Martín, 2002; Meins, 1997). Amaren hezkuntza-mailak ere lotura positiboa du TOM gaitasunekin, baita hezkuntza-estilo baimendua erabiltzeak ere (Vinden, 1997, 2001). Aipatzekoa da, halaber, familia-testuinguruaren kalitateak goi-mailako gaitasun intelektualen garapenean eragiten duela, dirudienez, estilo asertibo edo adierazpen-estiloaren bidez, haurren errendimendua edonolako dela ere hura berez aintzatestearen bidez, egonkortasun emozionaleko giroaren bidez eta familiaren eta eskolaren arteko lankidetzaren bidez. Manzano eta Arranz (2008) egileek EAEko 500 hurreko lagin batekin egindako azterlanak berretsi zuenez, sormen-talentuaren eta goi-mailako gaitasunen garapenarekin estu lotuta dago goi-mailako gaitasuna duten haurren adierazpen-estiloarekin eta amaren kultura-mailarekin. Neba-arreben artean gogamen-egoerei eta emozioei buruz elkarrizketak izateak ere TOM gaitasunen garapenarekin lotura du (Cutting eta Dunn, 1999).



Nerabezaroan ere, gurasoek eragin nabaria dute seme-alaben garapen kognitiboan, eta biziki interesgarriak dira nerabeak bere kabuz pentsatzeko eta erabakiak hartzeko gaitasuna eta autonomia garatzera begirako jarduerak edo ekintzak. Ebidentzia enpirikoak erakusten duenez, ahozko trukearen, galderen, azalpenen eta norberaren iritziekin bat ez datozen iritziekiko tolerantziaren bidez seme-alabak modu independentean pentsatzera eta iritzi propioa izatera bultzatzen dituzten gurasoek garapen kognitiboa, ikuspegi zabala eta errendimendu akademiko ona sustatzen dute haiengan (Krevans eta Gibbs, 1996; Kurdek eta Fine, 1994).

Familia-testuinguruaren kalitatearen eta garapen psikoemozionalaren askotariko alderdien arteko erlazioari buruzko ikerlanen datuei dagokienez, esan daiteke, oro har, *familia-testuinguru lagungarri* batek (Pettit et al, 1997) –aurreko atalean deskribatu den modukoa: ekonomikoki egonkorra, estresa eragiten duten gertaerarik gabea, haurraren eta familiaren arteko egokitzapen ona duena, ordezeko zaintza egokikoa, gizarte-harreman sendoak dituena, kanpoko gizarte-laguntza duena eta gatazka urrikoa– lotura duela haurtzaroan eta nerabezaroan zeharreko garapen sozioemozional egokiarekin.

Atxikimenduaren teoriaren esparruan (Bowlby, 1969) ikerkuntzak argi erakutsi du atxikimendu seguruak haurraren premia biologiko eta sozialen eta atxikimendu-irudiak premia horiei emandako erantzun eraginkor eta egonkorraren arteko sinkronia nabariko elkarrekintza edo interakzio baten historia islatzen duela. Hala, atxikimendu seguruak doitasun psikologikoa dakarrela eta, alderantziz, doitasun psikologikoak atxikimendu seguruko alde aurretiko erlazioa egon dela adierazten duela (Meins, 1997; Oates, Lewis eta Lamb, 2005). Srouferen (2002)berrikuspenari jarraituz, atxikimendu segurua adierazle sendoa da haurrak haurreskolara eta eskolaurreko eta eskolako esparruetara ongi egokituko direla iragartzeko; era berean, lotura du haurtzaroan autoestimua garatzearekin eta haurtzaroko eta nerabezaroko doitasun psikologiko egokiarekin.

Familia-testuinguruaren kalitatearen beste adierazle bat familiaren barneko emozioen adierazkortasun-maila da. Amaren eta haurraren emozioen adierazkortasunak eta emozioei buruzko hizkuntzak eskolaurreko haurren garapen sozioemozionalarekin lotura du (Denham eta Grout, 1992). Haurren estatus soziotraumatikoan ere badu zerikusia emozioen adierazkortasun-mailak (Boyum eta Parke, 1995). Azken urteetan arlo horren egindako ikerketek arreta berezia eman diete enpatiako eta emozioen erregulazioko prozesuei;



gurasoen enpatiak, beren emozioen adierazkortasunak eta seme-alabengan adierazkortasuna sustatzeak haurrek enpatia garatzen laguntzen dute eta hori, era berean, portaera prosozialaren iragarle sendoa da (Garner, 2006; Rosenblum, Dayton eta McDonough, 2006; Strayer eta William, 2004).

Familiarteko erlazioen kalitatea ez dago doitasun pertsonalari loturik soilik; zerikusia du, halaber, haurrek eta nerabeek beren kidekoekin eratzen dituzten harremanen kalitatearekin (Steinberg eta Sheffield, 2001), eta gurasoak gizarte-elkarreraginak errazteko inplikatzeari garrantzi handiko faktorea da elkarreragin edo interakzio horien garapenean. Bestalde, familia-elkarreraginaren kalitatearen adierazle gisa deskribatu dute Barnett eta Gareisek (2007) ama eta aita seme-alabentzat oso eskuragarri izateak duen eragin positiboa. Afektua, laguntza eta komunikazio positiboa direnean guraso eta nerabeen arteko erlazioen bereizgarriak, nerabeek doitasun psikologiko hobea dute, honako alderdi hauei dagokienez: beren buruarekiko konfiantza (Steinberg eta Silverberg, 1986), jokabide-gaitasuna eta gaitasun akademikoa (Steinberg, Lamborn, Dornbusch eta Darling, 1992), autoestimua eta ongizate psikologikoa (Noller eta Callan, 1991; Oliva, Parra eta Sánchez, 2002), depresioaren zantzu gutxiago (Allen, Hauser, Eickholt, Bell eta O'Connor, 1994) eta portaera-arazo gutxiago (Ge, Best, Conger eta Simons, 1996).

Gurasoen kontrolak –eta, horri atxikita, mugak ezartzeak eta erantzukizunak eskatzeak– eta portaeraren monitorizazioak nerabezaroan garrantzizkoak izaten jarraitzen dutela ikusi da (Oliva, 2006, Steinberg eta Silk, 2002)). Jokabidearen kontrola kanpo-doitasun hobeari lotuta ageri da, eta kontrol psikologikoa –erruduntasunaren indukzioan oinarritua–, berriz, arazo emozionalekin (Barber, 1996; Garber, Robinson eta Valentiner, 1997; Silk, Morris, Kanaya eta Steinberg, 2003) eta jokabide-arazoekin (Conger, Conger eta Scaramella, 1997; Parra eta Oliva, 2006). Kerr eta Stattin (2000) egileek, berriz, aurkitu zuten gurasoek nerabeen portaera ikuskatzeko erabiltzen dituzten estrategiak baino gehiago, nerabeek beren kabuz gurasoei aitortzen dienak iragartzen duela adingabeen doitasuna, eta hori bera ikusi dute beste ikerlan batzuetan ere (Oliva, Parra, Sánchez-Queija eta López, 2007).

Oro har, ikerketen emaitzek erakutsi dute estilo demokratikoaren praktikak lotura duela haurtzaroko doitasun psikologiko osasungarriarekin, hala nola autoestimu-indize egokiarekin, egonkortasun emozionalarekin, autokontrolerako gaitasunarekin, errendimendu akademiko onarekin eta portaera antisozial apalarekin (Jiménez eta Muñoz,



2005). Estilo autoritarioa eta axolagabea, aldiz, bereziki loturik daude halako giroetan hazitako hurrek beren kidekoekin jokabide oldarkorrak izatearekin; era berean, jokabide horiei zigor fisikoa atxikitzen zaie eta zigorrak portaera horiek aktibatzen ditu. Gainera, kidekoekiko erasoak kidekoen arbuioa dakar eta, epe luzera begira, portaera antisoziala (ikus Arranzen berrikuspena, 2004). Nerabezaroan, estilo demokratikoa da neska-mutilen garapenerako egokiena, eta guraso demokratikoen seme-alabengan antzeman dira autoestimua eta garapen moraleko maila altuenak, eskolarekiko interes handiena eta errendimendu akademiko onena; gainera, horiek dira substantzia gutxien kontsumitzen dutenak eta jokabide-arazo gutxien dutenak (Steinberg eta Silk, 2002).

Berriki, hezkuntza-estiloak kontzeptualizatzeko eta neurtzeko eredu berri batzuk deskribatu dira, hala nola, honako alderdi hauek oinarri dituenak: afektua-komunikazioa, autonomiaren sustapena, jokabidearen kontrola, kontrol psikologikoa, gauzak jakinaraztea eta umorea (Oliva, Parra eta Arranz, 2008). Hezkuntza-eredua gurasoek haurraren hazkuntzan sortzen diren gatazkei aurre egiten dieten moduan ere islatzen da; Pridham et al (1995) egileek gatazkak konpontzeko estilo baimendua eta autoritarioa deskribatu zituzten. Gatazkak konpontzeko estrategia aurreratuak erabiltzea, hala nola argitzea eta planifikatzea, amek arazo praktikoak konpontzeko dituzten ahazko gaitasunei eta prestakuntzari lotuta dago.

Bikotekideen arteko gatazkaren maiztasuna eta hurrak gatazka horien eraginpean egotearena da familia-testuinguruaren kalitatearen beste adierazle esanguratsu bat. Oro har, esan daiteke gatazken eraginpean gutxitan egotea babes-faktorea dela garapen sozioemozionalerako, eta gatazken eraginpean sarri egotea, berriz, arrisku-faktorea (Cantón, Cortés eta Justicia, 2007; Grych eta Fincham, 2001). Bikotekideen arteko gatazkan aldagai makro eta exosistemikoak nahasten dira; Shafferrek (1996) bikotearen lan- eta ekonomia-egonkortasunik ezaren eta bikotekideetako baten edo bien erantzun depresiboaren arteko (Jaffee eta Poulton, 2006) eta haurren hazkuntzan defizita dakarren ondorengo giro gatazkatua areagotzea eta bikotekideen estresaren arteko katea nabarmendu du. Bestalde Oliva, Morago eta Parra (2009) egileek agerian utzi zuten nerabeen lagin batek estresa eragiten duten gertaerak bizi izanak areagotu egiten zituela 15 eta 18 urte bitartean haiek zituzten barnera begirako nahiz kanpora begirako arazoak (emozionalak eta jokabideari lotuak), sostengua edo ikuskapenak ezaugarritutako familia-ingurunea zuten kasuetan izan



ezik; eta horrek esan nahi du nerabezaroaren azken urteetan ere babes-faktore garrantzizkoa dela gurasoen sostengua.

Neba-arreben arteko erlazioa ere nerabazaroko doitasun pertsonalarekin lotuta dago; horixe nabarmentzen du Oliva eta Arranzen (2005) lanak, zeinetan ikusten baita neba-arrebeekin harreman ona duten nerabeek harreman onak dituztela gurasoekin eta kidekoekin, baita autoestimu eta bizi-gogobetetasun handia ere.

Gurasotasunaren esparruan, erreferentzia adierazgarria da, halaber, Familia Hezkuntzako Nazioarteko Formazio eta Ikerketa Elkartearen bidez (AIFREF) herrialde askotan zabaldutako proposamen teorikoa eta esku-hartzeari begirako proposamena. Proposamen hori 12 premien paradigman oinarritua da, eta lau esparrutan biltzen ditu premia horiek: afektiboa, kognitiboa, soziala eta balioena (Pourtois y Desmet, 2006). Proposamen sistematiko bat biltzen du, GCOaren formulazioan lan honetan egindakoaren oinarri ere badena.

Familia-testuinguruen kalitatearen eta garapen psikologiko osasungarriaren arteko erlazio zuzenki proportzionala berresten duen literatura zientifikoaren azterketa eginda, datu batzuk emango ditugu azken urteetan Mendebaldean gertatutako jokabide-arazoen, portaera antisozialaren eta adimen-osasuneko patologien ugartzeari buruz. Asmussenen (2011) berrikuspenaren arabera, ingeles hizkuntzako herrialde industrializatuetan haurren eta gazteen bilakaera ez da egokia; adibidez, Erresuma Batuan, 10 haurretik bati adimen-osasuneko arazo bat diagnostikatzen diote urtean (Green et al., 2005).

Maiztasuna are altuagoa da Australian, Kanadan eta Estatu Batuetan: hain zuzen ere, haurren %12-14k jasaten du uneren batean adimen-osasuneko arazo gisa diagnostika daitekeen arazoren bat. Adimen-osasuneko arazoetan sartzen dira gorabehera emozionalak, hala nola, depresioa eta antsietatea, eta portaera-arazoak, hala nola, jokabide-desordenak eta hiperaktibitatea. Asmussenek (2011) ondorioztatu du, Costello et al. (2003) eta Der Jafee et al. (2005) ikertzaileen lanetan oinarrituta, gizarte anglosaxoietakoa haur guztien %35-40 ingururi diagnostikatuko diotela adimen-osasuneko arazoren bat 18 urte betetzen dituztenerako. (McGorry et al 2007 eta Waddell et al 2005). Gurasotasun politikak garatzeko premia berresteko datu esanguratsuak bildu dira eskola-porrotaren adierazleetan eta, horiek



baino dramatikoagoak direnak, berriki nabarmentzen hasitako haur-guraso indarkeriaren areagotzeari buruzkoetan (Ibabe, Jaureguizar eta Díaz, 2007).

Asmussenek (2011) dioenez, adimen-osasuneko arazoak tratatu gabe utziz gero, epe luzera begirako ondorioak agertzen dira askotariko arloetan, hala nola enplegua lortzeko garaian edo bikote-harremanetan. Era berean dio adimen-osasuneko arazoren bat duen 10 urteko haur batek komunitateari dakarkion kostua haur osasuntsu batek dakarkiona halako hamar ere izan daitekeela, adimen-osasuneko arazoek asistentzia espezializatuan eta sistema judizialean edo eskolakoan sortzen dituzten gastu paraleloak direla-eta. Adimen-osasuneko arazoek lotura nabarmena dutenez familia-testuinguru desegokietako hazkuntza disfuntzionalarekin, begi-bistakoa da prebentzio-politikak implementatzearen komenigarritasuna, hala nola, azterlan honen xede diren gurasotasun programak.

Gurasotasun jardueren bidez esku-hartze soziala bideratzea eskatzen duten euskal familien egoera demografiko eta erlazionalei dagokienez, eta aurrez aipatutako agiri ofizialei erreparatuta (Eusko Jaurjaritza 2010a eta b; Eusko Jaurjaritza 2011a, b eta c), aipatzekoa da mendekotasun egoeran dauden seme-alabak dituzten familien artean esku-hartzea behar duten guraso bakarreko familien ehuneko altua (guraso bakarreko familien %40, euskal familien %3). Familia horiek arrisku- eta bazterketa-indize altuagoa dutela kontuan harturik, begi-bistakoa da laguntza-neurriak eskaini behar zaizkiela, gurasotasunekoak tarteko. Adierazgarria da, orobat, familien %18,8k esatea 18 urtetik beherako seme-alabekin loturiko arazo larriren bat dutela. Baita familiaren barruko komunikazioari buruzko datuek ere esaten baitute, oro har, aitarekiko komunikazioa zaila dela (elkarrizketatuen %38k dituzte kezkarriak zaizkien gaiei buruz aitarekin hitz egiteko arazoak) eta askoz ere errazagoa amarekin (%14k diote hitz egiteko arazoak dituztela). Era berean, 2010. urtean, 9.500 adingaberi eman zieten arreta EAEko hiru lurraldeetako adimen-osasuneko zerbitzuetan.

Bestalde, haurrak zaintzapean dituzten bikoteen banantzeen eta dibortzioen kopurua 2005 eta 2009 bitartean nabarmen jaitsi bada ere (1.000 kasu gutxiago), 2009. urtean haurrak zaintzapean zituzten 2.088 bikote banandu ziren. Kasu askotan, banantzeko eta dibortziatzeko prozesuaren ondorioz, gurasoen gatazkaren eraginpean gelditzen dira adingabeak, eta nabarmentzekoa da haurren doitasun psikologikoan eragin negatiboenetakoa duen esperientzietako bat dela. Gatazka-adierazleak dira, halaber, desagertutako adingabeen kasuak (1.260 kasu 2010ean; oro har, urte berean agertuak),



haur-guraso arteko erasoen ondoriozko neurriak ezartzen zaizkien haurren kasuak (49 kasu, 2007an) eta adingabeak biktima dituzten familia-inguruneko delituei dagozkien adierazleak (395 kasu, 2010ean).

Aintzat hartzekoak dira alkoholaren eta beste substantzia batzuen kontsumo goiztiarrari buruzko datuak ere; EAEn, 13 urterekin hasten dira gazteak alkohola kontsumitzen, eta erkidegoko adingabeen ia %20k alkohola kontsumitzen du astero; gainera, 15 eta 19 urte bitarteko euskal herritarren %26k dio asteburuan neurritz gain edaten duela edo arriskuko edalea dela. Bestalde, 15 eta 19 urte bitarteko gazteen %20k kalamua kontsumitzen du, eta kontsumo esperimentalak %43,8koa da.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzaren 2011b eta 2011c dokumentuak abiapuntu hartuta, euskal familiek neurritz gairik gabeko hezkuntza-jarraibideei jarraitzen dietela esan daiteke. Nabarmentzekoak dira, halaber, arrisku-jokabideen maiztasuna erakusten duten datuak edo familien eta eskolaren artean gertatzen diren hezkuntza-arazoei buruzkoak (autonomiarekin, autoerregulazioko portaerekin, diziplinarekin, etab. zerikusia dutenak).

Gurasotasun politiken garapena sustatzeko funtsezko alderdia da, halaber, politika horiek dakartzaten ondorio positiboak egiaztatzea. Eskuragarri dauden ikerketen datuek zera iradokitzen dute: gurasoei seme-alabekin elkarrekin egokian jarduten eta seme-alaben portaera negatiboak deuseztatzen irakasten dieten programak bereziki egokiak dira nerabezaroan eta helduaroan portaera-arazoak izateko joera murrizteko (Pritz eta Jones, 2003). Orobat iradokitzen dute programa horiek publiko orokorrentzat eskuragarri daudenean onura orokorrak lortzen direla, gazteen delitu kopurua murrizteari, kontsumo desagokiei, haurren tratu txarrak murrizteari eta eskolako errendimendua handitzeari dagokienez (Asmussen, 2011).

Ebidentzian oinarrituriko programen aplikazioa haien errentagarritasun ekonomikoaren ikuspegitik aztertu izan dute hainbat ikerketek. Adibidez, Ameriketako Estatu Batuetan *Perry Preschool* programa aplikatu izanari esker, programa horretan inbertitutako dolar bakoitzeko 7 dolarreko aurrezkoa lortu zen tasetan (Aos et al., 2004). Estatu Batuetan, *Ebidentzian Oinarrituriko Politikarako Elkargoa* sortu zen, bermatzeko gobernuak inplementatuko zituen programa guztiek zutela eraginkortasunari buruzko ikerketa enpirikoen sostengu zabala; elkargoaren gomendioei jarraituz, Obamaren



gobernuak 8 milioi dolarretik gorako aurrekontua sortu du datozen hamar urteetan ebidentzian oinarrituriko familietako bisita-programak garatzeko.



4. GURASOTASUN GAITASUNAK, HAIEN TRANSMISIOA ETA EBALUAZIOA

Gurasotasun politiken helburua da gurasoak hezkuntza-funtzioa gauzatzeko behar bezala presta daitezen lortzea. Prestakuntza horrek, hezkuntza-jarduera den heinean, sistematizaziorako gutxieneko metodologia-irizpide batzuk partekatzea eskatzen du, baita haren transmisiorako didaktika egokiak garatzea ere. Hortik zuzenean eratortzen da gurasoek hezkuntza-jarduera gauzatzeko behar dituzten trebetasunak izendatzeko gaitasunaren konstruktua teorikoa erabiltzeko premia.

Kontuan hartuta zenbat definizio, formatu eta eduki dauden gurasotasunaren gaitasunei buruz esku-hartzearen esparruan, ezinbestekoa da proposamen kontzeptual eta instrumental bat egitea, gurasoekin esku hartzeko estrategiek garatu behar dituzten gurasotasunaren gutxieneko gaitasunen curriculumak izan dezaten profesionalek.

Hasteko, materiala antolatzeko lagungarria izan daiteke gaitasunen artean egin ohi den bereizketa klasiko hau erabiltzea: *ezagutza-gaitasunak, gaitasun instrumentalak eta gaitasun exekutiboak*. Bereizi egin behar dira, halaber, hazkuntzaren alderdiak edo/eta familia-testuinguruaren aldagaiak eta zehazki gurasotasun-gaitasunak direnak. Garrantzizkoa da azpimarratzea gurasotasuneko esku-hartze guztietako jarduerak ez direla oinarritzen familiek gurasotasun-gaitasunak bereganatzean; badira zenbait alderdi, hala nola, familien edo bizi diren auzoaren maila sozioekonomikoa edo hezkuntza-maila, eragin handia dutenak familia-testuinguruan, nahiz eta ez izan gurasotasun-gaitasunak, zehazki.

Bestalde, familia-testuinguruaren eta garapen psikologikoaren arteko erlazioaren gaineko ikerketen emaitzak esku-hartzearen eremura hedatu behar dira, eta gaitasun bihurtu, hainbat mailatan. Adibidez, haurren garapen psikologiko osasungarria bermatzeko kalitatezko ordezkoi zaintza antolatzearen onurak agerian uzten dituzten ikerketa-datuak (Belsky, 2006). Ebidentzia horretatik abiatuta, gurasoek JAKIN beharko lukete (*ezagutzazko gaitasuna*) zein diren ordezkoi zaintzaren baldintza optimoak, baita ezagutza horiek beren errealitate partikularrean APLIKATU ere (*ezagutza instrumental eta exekutiboa*).



Azken batean, helburu adierazgarria da, dirudienez, gurasotasun-gaitasunei buruzko proposamen ongi artikulatua lantzea, haietan eragina izan dezaketen beste aldagai batzuen esparruan. Horretarako, funtsezkoa da diseinu ekologikoa aplikatzea (Bronfrenbrenner, 1979, 2005), gurasotasun aldagaiak eta gurasotasun gaitasunak uztartuta.

Gaitasun berriak hartzeari edo gaitasunak moldatzeari dagokionez, funtsezko alderdia da horiek aldatzeko edo barneratzeko erabiltzen den prozeduraren kalitate didaktikoa. Azken hezkuntza-helburua da ikaskuntza kaudimenduna lortzea gaitasun jakin baten gaineko ezagutza teorikoan, eta baita gaitasun hori testuinguru jakin batean exekutatzeko beharrezkoa izan daitekeen erabilera instrumentalean ere.

Zerbait nola egiten den jakiteak ez du esan nahi badakigunik zerbait hori eraginkortasunez praktikan jartzen; beraz, gaitasuna lortzeko metodologiak berealdiko garrantzia du. Esparru horretan, askotariko planteamenduak egin izan dira, gaitasunen jabekuntzarako hezkuntza-prozesuari buruzko askotariko oinarrietatik abiatuta. Funtsean, bi prozedura didaktiko bereiz daitezke: bat, baldintza eragilearen printzipioetan oinarritua, eta bestea esperientzia-ikaskuntzaren prozedura konstruktibistetan oinarritua (Rodrigo et al., 2010a eta b).

Bestalde, gaitasunen hizkuntza erabiltzea behar-beharrezko sistematizazioa da familia-testuinguruaren ebaluaziorako tresnak lantzeko, gaitasun bakoitza haren presentzia edo absentsia neurtzeko adierazle enpirikoen bitartez ebaluatu beharra dagoen heinean; adierazle horiek zuzeneko behaketatik eratorriak, familia-elkarrizketatik eratorriak edo gaitasun sorta jakin bati buruzko elkarrizketetatik eratorriak izan daitezke. Era berean, programen beraien ebaluazioa zuzena izan dadin, ezinbestekoa izango da neurtzeko moduan definituta edukitzea gaitasunak. Oinarri horien gainean aplikatzen da RCT estrategia (ausazko kontrol-estrategia), programen ebaluaziorako prozedura hedatuena; estrategia horrek luzetarako diseinu baten bidez ebaluatzen ditu programak, kontrol-taldean eta talde esperimentalean programa aplikatu aurretiko neurketak eginez eta, gero, programa aplikatutakoan, talde esperimentalean ausazko azterketa eginez. Gurasotasun programen implementazioaren justifikazio zientifikoaren (txosten honen 3. atala) eta gaitasunen hizkuntzaren pertinentziaren (4. atala) arteko laburpena biltzen du txosten honen 8. puntuan azaldutako Gurasotasunerako Curriculum Optimoaren (GCO) proposamenak. Gaitasunen hizkuntzaren sakoneko konstruktio teoriko-praktikoari buruzko informazio



xeheagoa lortzeko, honako aditu hauen lanak kontsulta daitezke: Mulder, Weigel eta Collings (2008) eta Rodrigo, Quintana, Cabrera eta Máiquez (2009).



5. IKERKETAREN PROZEDURA

Proiektu honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoan “gurasotasunarekin” loturik abian diren edo 2011n gauzatu diren (eta haien berri izanik, identifikatu ahal izan diren) programak, jarduerak edo ekimenak ezagutzea; arrisku ertain edo txikiko biztanleria multzoan sailkatutako 0 eta 18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familiak helburu dituzten programak identifikatu dira, erakunde publiko nahiz pribatuek eskainitakoak.

Zehatzago adierazita, honako baldintza hauek betetzen dituzten programak eta/edo jarduerak hartu dira kontuan azterlanean:

- Prebentziozko programak/jarduerak.
- Arrisku ertain-txikiko herritarrei oro har begirako programak/jarduerak.
- 0-18 urte bitarteko seme-alabak dituzten familientzako programak/jarduerak.
- Gurasotasunean oinarrituriko eta seme-alaben hazkuntzarekin eta hezkuntzarekin loturiko programak/jarduerak.
- Udaletako eta mankomunitateetako gizarte-zerbitzuen edo/eta hezkuntza-zerbitzuek, familiekin eta familientzat lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteek eta ikastetxeetan familiei eskaintzen dizkieten zerbitzuek antolatutako programak/jarduerak.

5.1. Lagina: Mankomunitateak

Hiru lurralde historikoetako mankomunitate guztien zerrenda osatutakoan, jarduerarekin gisa gizarte-zerbitzuak edo/eta hezkuntza dituztenak aukeratu ziren. Honako hauek, zehazki:

1. taula: azterlanean aintzat hartutako mankomunitateak

Bizkaia	<ol style="list-style-type: none">1. Arratiako Mankomunitatea2. Enkarterriko Mankomunitatea3. Lea-Artibaiko Aankomunazgoa4. Durangoko Merinaldearen Aankomunazgoa5. Busturialdeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea6. Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
---------	--

	7. Uribe-Kostako Zerbitzu Mankomunitatea 8. Mungialdeko Partzuergoa
Araba	1. Añanako Kuadrilla 2. Araiarako Kuadrilla 3. Kanpezuko Kuadrilla 4. Laguardiako Kuadrilla 5. Aguraingo Kuadrilla 6. Zuiako Kuadrilla
Gipuzkoa	1. Aiztondoko Mankomunitatea 2. Saiazko Mankomunitatea 3. Urola-Garaiko Mankomunitatea 4. Uliko Mankomunitatea 5. Urola-Kostako Mankomunitatea

Udalak

Hasierako proiektuaren helburua zen 50.000 biztanletik gora dituzten udalerrietako gurasotasun programak aztertzea; baina, lan-taldearen iritzian, ez zen behar bezain lagin adierazgarria, indarrean zeuden programen gaur egungo egoera erakusteko, gehiegi mugatzen zuelako aztergaia. Hala, muga 25.000 biztanlera jaitea erabaki zen, programa gehiago biltzearen. Udalerrri hauek hautatu ziren, azkenik, irizpide horri jarraituz:

2. taula: azterlanean aintzat hartutako 25.000 biztanletik gorako udalerrriak

Bizkaia	- Barakaldo (99.074 biztanle) - Basauri (42.542 biztanle) - Bilbo (353.296 biztanle) - Durango (28.640 biztanle) - Erandio (25.000 biztanle) - Galdakao (29.194 biztanle) - Getxo (80.418 biztanle) - Leioa (30.165 biztanle) - Portugalete (47.739 biztanle) - Santurtzi (46.810 biztanle) - Sestao (28.970 biztanle)
Araba	Gasteiz (237.150 biztanle)
Gipuzkoa	Donostia (182.094 biztanle) Eibar (27.201 biztanle) Irun (60.076 biztanle) Errenteria (38.738 biztanle)

Elkarteak

Familiekin eta familientzat lan egiten duten irabazi asmorik gabeko elkarteak bildu ziren. Hirugarren sektoreko elkarteak (elkarte zibilak, fundazioak, kooperatibak, elkargo profesionalak, etab.). Zerrenda Eusko Jaurlaritzaren Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren bidez eskuratu genuen. Hauek dira elkarteak:

3. taula: azterlanean aintzat hartutako irabazi asmorik gabeko elkarteak

<i>Euskadiko Familia Ekintza</i>
<i>Agintzari</i> Gizarte Ekimeneko Kooperatiba
<i>Agipad</i> , Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentziorako Gipuzkoako Elkartea
<i>Kiribil Sarea</i> Gizarte Heziketako Elkartea
<i>Lagungo</i> Familia Orientazioko Zentroa
<i>Hirukide</i> : Euskadiko Familia Ugarien Elkarten Federazioa
<i>EDE</i> : Fundazio Kanoniko Autonomia
<i>Harribide</i> Fundazioa
<i>Kidetza</i>
<i>Emakunde</i>

Itunpeko ikastetxeak edo/eta ikastetxe pribatuak

Lurralde historiko bakoitzeko hamabost ikastetxe hautatu ziren, ausaz, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren zerrendako ikastetxe pribatuen zerrenda ofizialaren konbinazio batean oinarrituta. Honako hauek, hain zuzen:

4. taula: itunpeko ikastetxeak edo/eta ikastetxe pribatuak

Araba	<ol style="list-style-type: none">1. Aresketa Ikastola2. Bastide Ikastola3. Laudio Ikastola4. Oiongo San Vicente Ikastola5. Olabide Ikastola6. Lautade Ikastola7. ASSA Ikastola8. Hogar San José Ikastetxea9. Nazaret Ikastetxea10. Niño Jesús Ikastetxea11. Carmelitas Sagrado Corazón Ikastetxea
-------	--

	12. Jesús Obrero Ikastetxea 13. Diocesanas Ikastetxea 14. San Prudencio Ikastetxe Pedagogikoa 15. Apostólico San José Ikastetxea
Bizkaia	16. Nuestra Señora de Begoña 17. José Calasanz Ikastetxea 18. Salesianos Ikastetxea 19. La Salle (Bilbo) 20. Jesús y María Ikastetxea 21. Maristas Ikastetxea 22. Fátima Ikastetxea 23. Begoñazpi Ikastola 24. Urretxindorra Ikastola 25. Lauro Ikastola 26. Lauaxeta Ikastola 27. Irlandesas Ikastetxea 28. Larramendi Ikastola 29. Askartza Claret Ikastetxea 30. Madre del Divino Pastor Ikastetxea
Gipuzkoa	31. San Benito Ikastola 32. Axular Lizeoa 33. Ekintza 34. Herri Ametsa 35. San José de Floreaga 36. El Pilar 37. La Asunción Miracruz 38. Beasain Ikastola 39. Gaztelupe-Aimazubi 40. Orereta Ikastola 41. Usabalgo Laskorain Ikastola 42. La Salle (Eibar) 43. Ama Guadalupekoa 44. Presentación de María 45. Murumendi

5.2. Datuak biltzeko prozedura

Proiektuan aztergai izango ziren erakundeen zerrendak osatutakoan, haietako bakoitzarekin harremanetan jarri ginen, telefonoz nahiz posta elektronikoz, proiektuaren



berri emateko eta laguntza eskatzeko. Elkarrizketak erakunde parte-hartzaile bakoitzak eskatutako hizkuntzan egin ziren.

Hiru sailetako erakunde guztiekin banakako lana egin da eta, abiapuntutzat gero zehaztuko den oinarritzko jarduera-protokolo bat hartu genuen arren, protokolo hori elkarrizketatu bakoitzaren premiei egokitu zitzairen, ahalik eta informazio gehien lortzearen eta inplikaturako kideen partaidetza erraztearen. Hau da erakundeekin erabilitako jarduera-protokolo formala:

Proiektuari buruzko informazioa: posta elektronikoz mezu bat igorri zitzairen udaletako edo mankomunitateetako gizarte-zerbitzuetako edo/eta hezkuntzako arduradunei, elkarreentako arduradunei eta ikastetxeetako arduradunei. Mezu horretan, proiektuari buruzko informazioa eman zitzairen, eta hartan parte har zezaten eskatu (dokumentu honen I. eranskinean atxiki da Eusko Jaurlaritzaren gutun ofiziala).

Irizpideak bateratzea: telefonoz hitz egin genuen arloko edo saileko arduradunekin (gizarte-zerbitzuak edo/eta hezkuntza), urrats hauek egiteko:

- Informazioa behar bezala jaso zutela egiaztatu.
- Proiektuan aztertze moduko programa edo jarduerarik baduten edo 2011n izan zuten jakitea, gurasotasunari loturiko irizpideak aintzat hartuta.
- Laburpen-dokumentu bat igortzea, gurasotasunaren funtsezko edukiei buruz.
- Oinarriak finkatutakoan (proiektuaren nondik norakoen ezagutza eta edukien ezagutza), proiektuan aztertze moduko programarik/jarduerarik baden edo ez berretsi zen.

Programak aukeratzea: arduradun bakoitzak bere kasa erabaki zezakeen elkarrizketaren bidez bere erakundearen zer programa landu (II. eranskina). Eranskinean ageri den elkarrizketa hori udal eta mankomunitateei igorritako elkarrizketa osoa da. Elkarre eta ikastetxeei igorritako elkarrizketetan hartzaileen arabera aldaketak egin ziren.

Informazioa biltzea: identifikatutako programen arduradun bakoitzak elkarrizketa nola egin nahi zuen aukeratu zuen:

- Aurrez aurreko elkarrizketa.
- Telefonozko elkarrizketa.



- Posta elektronikoko elkarrizketa: elkarrizketa posta elektronikoz bidaltzeko aukera eskaini genuen, elkarrizketatuari lana errazteko; bide hau aukeratuta, elkarrizketari erantzun eta berriro posta elektronikoz bidali besterik ez zuten egin behar, zalantzak telefonoz nahiz posta elektronikoz argituta.
- Webgunearen bidez: elkarrizketa elkarrekin betetzeko aukera ematen zuen bide honek; hau da, elkarrizketatzaileak programari buruz (aldez aurretik elkarrizketatuak hautatutako programari buruz) webgunean ageri den informazioa biltzen zuen, eta informazio hori elkarrizketaren formatura egokitzen zuen. Ondoren, elkarrizketatuari igorri behar zitzaion, hark osa zezan, datu gehiago emanez; eta, azkenik, emaitza elkarrekin ikuskatzeko plangintza bat prestatzen zen.

Informazioa biltzeko edozein formatu aukeratzen zela ere, konbinatu egin zitezkeen erakunde bakoitzaren premien eta eskakizunen arabera. Adibidez, hala eskatu zuten erakundeei aukera eman zitzaien elkarrizketa datu-basean sartu aurretik hura posta elektronikoz jasotzeko, behin betiko ikuskapena egiteko, edozein zela ere hautaturiko prozedura.

5.3. Informazioa biltzearekin loturiko beste ohar batzuk

Informazioa biltzeko luzapena: informazio-trukea bideratzeko zenbait komunikazio-bide eta estrategia ahalbidetu arren, programa batzuk gauzatzeko denbora gehiago behar da; hori dela eta, elkarrizketatuei denbora gehiago eman zitzaien elkarrizketa amaitzeko eta berriro bidaltzeko. Elkarrizketa elkarrizketatzaileak eta elkarrizketatuak zenbait bidetatik osa zezaketenez (elkarrizketaren ondorengo berrikuspenak barne), luzatu egin zen datuak biltzeko prozesua, nahiz eta bildutako informazioaren kalitate hobea bermatzen duen horrek, azken emaitza gisa.

Informazioa artxibatzea: bildutako elkarrizketak word formatuan gorde ziren, banaka, eta datuen tratamendu estatistikorako SPSS programaren datu-matrizean sartu.

Programen gaineko ebaluazio orokorra:

Helburuak: programen *helburuak*, *edukiak*, *didaktika*, *materialak* eta *oinarri zientifikoak ebaluatzeko*, “epaileen arteko akordioa” erabili zen, ondoren zehaztutako kalitate-irizpideen arabera. Programa bakoitzaren helburuak



elkarrizketaren 31. galderan adierazita daude; 32. galderan elkarrizketatuak helburu horiei buruz duen iritzia biltzen da, eta, ondoren, beste aldagai bat gehitu da, elkarrizketatzaileek helburuen ebaluazioa egin dezaten (0 eta 10 puntu bitarte emanez), honako kalitate-irizpide hauek ardatz hartuta:

- Gaitasunak formulatzeko hiztegia.
- Kontzeptuen argitasuna eta zehaztasuna.
- Gurasotasunaren edukiekiko egokitzapena.

Programen **edukiak** elkarrizketako 34. galderan adierazi dira, eta 35. galderan elkarrizketatuak eduki horiei buruz duen iritzia bildu da. Ondoren, beste aldagai bat sartu da, elkarrizketatzaileek edukien ebaluazioa egin dezaten (0 eta 10 puntu bitarte emanez), honako kalitate-irizpide hauek ardatz hartuta:

- Gurasotasunaren edukiekiko egokitzapena.
- Kontzeptuen argitasuna eta zehaztasuna.
- Edukien zehaztasuna.

Programa bakoitzeko **materialen** berri elkarrizketaren 38. galderan aipatzen da; jarraian, beste aldagai bat sartu da, elkarrizketatzaileek materialen ebaluazioa egin dezaten (0 eta 10 puntu bitarte emanez), honako kalitate-irizpide hauek ardatz hartuta:

- Badagoen edo ez.
- Kalitatezkoak diren: gurasotasunaren edukiekiko egokitzapena.
- Kontzeptuen argitasuna eta zehaztasuna.

Didaktika: programen kalitate didaktikoa elkarrizketaren 44. galderan lantzen da; hurrengo galderan, berriz, elkarrizketatuak eduki horiei buruz duen iritzia ageri da, eta, jarraian, beste aldagai bat sartu da, elkarrizketatzaileek didaktikaren ebaluazioa egin dezaten (0 eta 10 puntu bitarte emanez), honako kalitate-irizpide hauek ardatz hartuta:

- Ekintza mota (hitzaldia, ikastaroa...)
- Prozeduraren eraginkortasuna
- Erabiltzailearen gogobetetasuna.
- Didaktiken konbinazioaren araberako elkarreragin errealik baden edo ez.



Programek **oinarri zientifikoak** badituzte, elkarrizketaren 46. galderan bildu dira; hala den kasuetan, beste aldagai bat sartu da, elkarrizketatzaileek oinarri zientifikoaren ebaluazioa egin dezaten (0 eta 10 puntu bitarte emanez), honako kalitate-irizpide hauek ardatz hartuta:

- Programa ezagunen oinarri zientifikoak.
- Horien aplikazioari buruzko argitalpen zientifikoak: programaren eraginkortasunaren ebidentzia.
- Ebaluazioaren kalitatea.

Datuen tratamendu estatistikoa: programa bakoitzari buruzko datuak datuen matrizean gordetakoan, datu horien analisisa egin eta deskribatzaileekin konbinatzen dira.

III. eranskinean zehaztuta daude ikergai hartutako erakunde bakoitzeko (udalak, mankomunitateak, elkarteak eta ikastetxeak) elkarrizketatuek aukeratutako programa guztiak.

Berriemaileen profil profesionala: datu hauek azterlaneko programen eta jardueren arduradunek eman zituzten. 5. taulan, elkarrizketa egin zitzaizen profesionalen prestakuntza profesionalaren banaketa zehaztu da:

5. taula: berriemaileen profil profesionala

PROFIL PROFESIONALA	F	%
Psikologiako doktoretza	1	%0,7
Psikologiako lizentziatura	32	%24,8
Pedagogiako lizentziatura	2	%1,5
Gizarte Langintzako diploma	49	%37,9
Goi-mailako ikasketak, zehaztu gabe	7	%5,4
Enpresa Zientzietako diploma	2	%1,5
Zuzenbideko lizentziatura	3	%2,3
Zuzenbideko lizentzia eta Gizarte Langintzako diploma	2	%1,5
Erdi-mailako ikasketak, zehaztu gabe	2	%1,5
Soziologiako lizentziatura	1	%0,7
Soziologiako lizentzia eta Gizarte Zerbitzuetako masterra	2	%1,5
Geografia eta Historiako lizentziatura	3	%2,3
Psikologiako lizentzia eta Pedagogiako lizentziatura	3	%2,3



Pedagogiako lizentzia eta Drogamendekotasunetako masterra	1	%0,7
Filosofiako lizentziatura	2	%1,5
Psikopedagogiako lizentziatura	1	%0,7
Medikuntzako lizentziatura	3	%2,3
Medikuntzako lizentzia eta Gizarte Politikako masterra	1	%0,7
Pedagogiako lizentzia eta Gizarte Heziketa	1	%0,7
Hezitzailea	2	%1,5
Gizarte Laguntzailea	1	%0,7
Ez da ageri	8	%6,2



6. EMAITZAK, EBALUAZIOA ETA GOMENDIOAK

Azterlan honetan, gurasotasuneko 129 jarduera eta programa aztertu dira (horietako batzuk errepikatuak: ikusi Arabako kuadrilletako programak edo Etxadik eskaintzen duen familia-orientazioko zerbitzua), 46 erakundek bideratutakoak (udalek, aldundiek nahiz elkarteek). Aipatzekoa da programak aukeratzeko garaian, irizpide kualitatiboak erabili direla horiek gurasotasun programa gisa sailkatzeko; batik bat lehen mailako prebentzio-izaera duten hartu dugu aintzat. Horrek esan nahi du badirela familiei begirako beste hainbat programa, baina ez direla azterlan honetan sartu, gurasotasunekotzat jo ez direlako. Ikastetxe pribatuek bideratutako programak kontuan hartu dira azterlanean, eta txosten honen beste atal batean egingo da horien gaineko ebaluazioa. Gurasotasunekotzat hartutako programak 6. taulan zehaztuta ageri dira, erakundeka banatuta.

6. taula: programen banaketa, erakundeka

02 ERAKUNDEA	Programen kopurua	Ehunekoak
Gasteizko Udala	13	10,1
Portugaleteko Udala	9	7,0
Barakaldoko Udala	6	4,7
Bilboko Udala	6	4,7
Añanako Kuadrilla	6	4,7
Aiarako Kuadrilla	6	4,7
Kanpezuko Kuadrilla	6	4,7
Laguardiako Kuadrilla	6	4,7
Aguraingo Kuadrilla	6	4,7
Zuiako Kuadrilla	6	4,7
Leioako Udala	5	3,9
Donostiako Udala	4	3,1
Galdakaoko Udala	3	2,3
Santurtziko Udala	3	2,3
LAGUNGO (Bilboko Familia Orientazioko Zentroa)	3	2,3
Lea-Artibaiko Amankomunazgoa	3	2,3
AFE (Euskadiko Familia Elkartea)	2	1,6
AGIPAD (Drogen Abusuaren Ikerketa eta Prebentziorako Gipuzkoako Elkartea)	2	1,6
Eibarko Udala	2	1,6

Irungo Udala	2	1,6
Errenteriako Udala	2	1,6
EMAKUNDE	2	1,6
Arratiako Amankomunazgoa	2	1,6
Durangoko Amankomunazgoa	2	1,6
Uribe-Kostako Mankomunitatea	2	1,6
AGINTZARI (Gizarte Ekimeneko Kooperatiba)	1	,8
KIRIBIL SAREA Gizarte Heziketako Elkarte	1	,8
Basauriko Udala	1	,8
Durangoko Udala	1	,8
Erandioko Udala	1	,8
Getxoko Udala	1	,8
Sestaoko Udala	1	,8
EDE (Fundazio Kanoniko Autonomia)	1	,8
HARRIBIDE Fundazioa	1	,8
HIRUKIDE (Euskadiko Familia Ugarien Elkarten Federazioa)	1	,8
KIDETZA	1	,8
Aiztondoko Mankomunitatea	1	,8
Busturialdeko Mankomunitatea	1	,8
Uliko Mankomunitatea	1	,8
Enkarterriko Mankomunitatea	1	,8
Mungialdeko Partzuergoa	1	,8
Saiazko Mankomunitatea	1	,8
Txorierriko Mankomunitatea	1	,8
Urola Garaiko Mankomunitatea	1	,8
Urola-Kostako Mankomunitatea	1	,8
Guztira	129	100,0

7. taula: programen banaketa, lurralde historikoen arabera

LURRALDE HISTORIKOA	Maiztasuna	Ehunekoa
Bizkaia	57	44,1
Araba	49	38,0
Gipuzkoa	18	14,0
EAE	5	3,9
Guztira	129	100,0

Nolabaiteko desoreka ikusten da EAEko hiru lurraldeen artean, Gurasotasun Programen (GP) eskaintza publikoari dagokionez. Proporzionalki, Araba da gurasotasun programa eta ekintza gehien ezarri dituen lurraldea. Arabaren aldeko desoreka hori zuzen aztertzeko, kontuan hartu behar da sei programa zehatz errepikatzen direla lurraldeko sei kuadrilletan; hain zuzen, ekintza hori Foru Aldundiak erkidetzen eta koordinatzen du, eta hainbat udal txiki hartzen ditu aintzat. Arlo publikoan programak kudeatzeko funtsezko ardura udalei eta mankomunitateei dagokie eta, noizbehinka, foru aldundiei; eskuarki, azken horiek arriskuan dauden familiei laguntzen diete, gehienbat. Aldizka, udal bereko zinegotzigo batean baino gehiagotan oso antzeko programak daudela antzeman da eta ez dagoela horien artean koordinaziorik, ezta programa horien hartzaile izango diren biztanleen artean jarduera horiek hedatzeari dagokionez ere.

Gomendioak:

- GPen ezarpena areagotzea Gipuzkoan eta Bizkaian.
- Erakunde beraren baitako GPen arloko baliabideak optimizatzea eta koordinatzea.
- GPen zerbitzuen eskaintza modu mankomunitatuan sustatzea.

GPak erakunde-programei atxikitzeari dagokionez, drogamendekotasunaren prebentzioaren arloan lantzen dira gehienbat, baita hezkuntzaren, gizarte-zerbitzuen eta komunitatearen ongizatearen arloan ere. Ziur asko, banaketa hori Eusko Jaurlaritzak drogamendekotasunaren arloari historikoki emandako babes handiaren ondorioa da 8. taulan, GPen arlokako banaketa ikus daiteke.

8. taula: GPen banaketa erakunde-kudeaketaren arloen arabera.

ARLO ARDURADUNA	Maiztasuna	Ehunekoa
Drogamendekotasuna	50	38,8
Komunitatearen ongizatea	10	7,8
Hezkuntza	10	7,8
Gizarte-zerbitzuak	10	7,8
Gizarte-ekintza	9	7,0
Hurtzaroa eta familia	7	5,4
Osasuna eta kontsumoa	4	3,1
Lankidetzak	2	1,6
Familiako esku-hartzea	2	1,6
Gazteria	2	1,6
Alkatetzak	1	,8

Familiak eta nerabezaroa	1	,8
Ingurumen-osasuna	1	,8
Aipatu gabe	20	15,5
Guztira	129	100,0

Oro har, esan daiteke sentsibilizazio orokorra dagoela familiekin prebentzioko esku-hartzeak egiteari dagokionez; izan ere, zinegotzigo edo arlo bat arduratzen da beti hura kudeatzeaz. Zalantzarik gabe, drogamendekotasunaren arlotik dator sentsibilizaziorik handiena, arlo hori oso zabaldua baitago EAEko gizarte-zerbitzuetan. Sentsibilizazio hori, halaber, kontsumo-jokabideen etiologian familia-testuinguruak daukan garrantzia agerian utzi duen ikerketa-corpus zabaletik dator. GPak eskaintzen dituzte aztertutako erakunde gehienek. Era berean, nabarmentzekoa da GPak gune bakoitzeko Guraso Elkarrekin koordinatuta egin ohi direla; erakundeek familien eskaerekiko duten sentsibilizazioa erakusten du horrek.

Gomendioak:

- GP gehiago ezartzea erakundeek esku-hartzea bideratzen duten arloetan, gurasotasun kontzeptuak prebentzio unibertsalarekin eta osasun publikoarekin duen kontuan hartuta.
- GPen ekintza-estrategiak koordinatzea, komunikabideen ekintzetan nahiz familiekin hainbat mailatako banakako praktketan.

Programen ebaluazioari dagokionez, GPen nolabaiteko ebaluazioren bat egiten dela ikusi da; ebaluazio horri dagozkion datuak 9. taulan ikus daitezke.

9. taula: programen ebaluazioa

PROGRAMEN EBALUAZIOA	EZ Maiz.	EZ %	BAI Maiz.	BAI %	EZ AIP. Maiz.	EZ AIP. %
Ezartzen dituzten erakunde berberak ebaluatzen dituzte programak?	19	14,7	84	65,1	26	20,2
Programak kanpoko erakundeek ebaluatzen dituzte?	87	67,4	14	10,9	28	21,7
Erabiltzaileen iritzia jasotzen da?	13	10,1	102	79,1	14	10,9

GPen ebaluazioa horiek aplikatzen dituzten erakundeen esku gelditzen da, oro har, eta GPen % 10,9 soilik ebaluatzen dute kanpoko eragileek. Ebaluazio motarik hedatuena erabiltzailearen gogobetetzeari buruzkoa da. Programen % 20 ez da ebaluatzen, eta % 10 ez da ebaluatzen erabiltzailearen gogobetetasunari buruzko informazioa bilduz ere.

Gomendioak:

- Programen ebaluazio independentea sustatzea.
- Programaren ebaluazioa programaren ezarpen metodologikoaren diseinuan eta haren aurrekontuan sartzea.
- Erabiltzailearen gogobetetasunari buruzkoak ez diren beste prozedura batzuk erabiltzea.
- Programaren ezaugarrien eta hartzaileetan dituen ondorioen arteko atzeraelikadura-sistema bat ezartzea: ikerketa-ekintza-atzeraelikaduraren eskema.

10. taulan ikerketa honetan identifikatutako GPen modalitateak ikus daitezke:

10. taula: programen modalitatea

PROGRAMAREN MODALITAEA	Maiztasuna	Ehunekoak
Presentziala	98	76
Ez-presentziala	14	11
Presentziala eta ez-presentziala	6	4.5
Ez-kalifikagarria	11	8.5
Guztira	129	100,0

Programa presentzialak edo aurrez aurrekoak nagusitzen dira, oro har; baina badira ez-presentzialak edo erdi-presentzialak ere, % 11, hain zuzen. Azken horiek aurrez aurreko saioak eta modu telematikoko banakako saioak edo elkarreraginak konbinatzen dituzte.

Gomendioa:

- Programa erdi-presentzialak pixkanaka ezartzea, etxetik bide telematikoen bidez zerbitzuetara sartzeko irisgarritasuna azkar handitzea espero delako, baita harremanak bide horretatik egiteak eskaintzen duen konfidentziasunaren abantailarengatik ere. Erdi-presentziala izateak taldearen modalitatearekin harreman zuzena izatea eta modu telematikoan banakako harremana izatea bermatzen du.



11. taulan, ikerketa honetan aztergai hartutako GPen aurrekontuak ikus daitezke.

11. taula: programen aurrekontuak

AURREKONTUAK	Maiztasuna	Ehunekoa
0-6.000 €	52	40,3
6.000-12.000 €	10	7,8
12.000-18.000 €	12	9,3
18.000-24.000 €	4	3,1
24.000-30.000 €	4	3,1
30.000-36.000 €	4	3,1
36.000-42.000 €	3	2,3
42.000-48.000 €	2	1,5
54.000-60.000 €	4	3,1
60.000 €baino gehiago	14	10,9
Guztira	109	84,5
Ez da aipatzen	20	15,5
Guztira	129	100,0

Programen bi herenek (% 66,7) 36.000 euro baino gutxiagoko aurrekontua dute. Bestalde, programen % 40,3k 6.000 euroko edo gutxiagoko aurrekontua jasotzen du. Eraitza hori xeheago azaltzeko, gogoratu behar da ez dela ezagutzen ekintzen % 15,5i esleitutako aurrekonturik.

Gomendia:

- GPen aurrekontua handitzea beharrezkoa da horiek zorrotasun handiagoz gauzatzeko eta etengabeko ebaluazioa eta hobekuntza egiteko. Prebentzio-programa eraginkorrek osasun- eta hezkuntza-sistemetan diru asko aurrezteko ahalbidetzen dute.

Ikerketa honetan aztertutako programen % 91,5ek urtebetetik gorako jarraipena izan du, ezarpenari dagokionez.

Gomendia:

- Adierazleen protokolo bat sortzea gomendatzen da, programa horien aplikazioa luzatzeko, kalitateko irizpide objektiboetan oinarrituta: eraginkortasuna, erabiltzaileen kopurua, etab.

GPaK eskaintzen diren hizkuntzari dagokionez, erakundeen eskaintza elebiduna izan arren erabiltzaile gehienek (% 72,1) zerbitzua gaztelaniaz erabiltzen dutela ikusi da. 12. taulan agertzen da hizkuntzen araberako banaketa.

12. taula: programan gehien erabilitako hizkuntza

PROGRAMAN GEHIEN ERABILITAKO HIZKUNTZA	Maiztasuna	Ehunekoa
Euskara	7	5,4
Gaztelania	93	72,1
Biak berdin	20	15,5
Guztira	120	93,0
Ez da aipatzen	9	7,0
Guztira	129	100,0

Datuek erakutsi dutenez, programen 15,5ek gaztelania edo euskara era berean erabiltzen du, eta programen % 5,4n soilik izan da euskara gehien erabilitako hizkuntza. Nolanahi ere, datu horiek bat datoz GPen ezarpen-profilarekin: hain zuzen, udal handiak eta gehienbat gaztelaniaz hitz egiten den gunek.

Gomendioa:

- Programen eskaintza elebiduna sustatzea, tokian tokiko benetako eskaerari erantzunez.

Ondoren, GPen helburu, eduki eta prozedura didaktikoen kalitateari buruzko emaitzak azalduko dira. Lehenengo zutabean, datuak biltzeko elkarrizketan erakundeak berak egindako kalitate-ebaluazioaren emaitzak agertzen dira. Bigarren zutabean, berriz, aholkuari taldeak egindako kalitate-ebaluazioaren emaitzak agertzen dira, txosten honetako prozedura-atalean azalduko irizpide espezifikoak erabilia. 13. taulan azaltzen dira helburuen kalitateari buruzko emaitzak.

13. taula: helburuen kalitatea

HELBURUEN KALITATEA	Erakundeak kalifikatuta		Kanpokoek kalifikatuta	
	Maiztasuna	Ehunekoa	Maiztasuna	Ehunekoa
Baxua	5	3.9	14	10,9

Ertaina	73	56.5	43	33,3
Altua	38	29.5	62	48.1
Guztira	116	89.9	119	92,2
Ez-kalifikagarria	13	10.1	10	7,8
Guztira	129	100,0	129	100,0

Egiaztatu denaren arabera, erakundeen kalifikazioa balio ertainean kontzentratzen da; kanpoko kalifikazioak, berriz, programa gehiago sartzen ditu balio baxuan, eta apalagoa da erakundeek balio ertainekotzat hartutako enkopurua. Nolanahi ere, kanpoko balorazioak programen ia % 50 maila altuan sailkatzen du, eta % 81,4 kalitate onargarriko mailetan; programen 10,9 geratzen da maila baxuan. Balorazio orokorra positiboa da, bereziki gurasotasunaren arloko gai nagusiak barne hartzeari dagokionez.

Gomendioak:

- GPen helburuak adieraztean, honako ezaugarri hauek aintzat hartu behar dira: termino zehatzak, kontzeptualki baztertzailerak, gurasotasunaren edukiak ardatz hartzea eta lorpenaren adierazleak eskaintzea, horiek ebaluatzea errazten duten termino neurgarrietan.
- Oro har, desiragarria da erakundearen eta kanpoko ebaluatzailearen artean ebaluazio-irizpideak adostea.

14. taulan, edukien kalitateari buruzko emaitzak agertzen dira.

14. taula: edukien kalitatea

EDUKIEN KALITATEA	Erakundeak kalifikatuta		Kanpokoek kalifikatuta	
	Maiztasuna	Ehunekoa	Maiztasuna	Ehunekoa
Baxua	7	5.4	17	13.2
Ertaina	69	53.5	69	53.5
Altua	37	28.7	31	24
Guztira	113	87.6	117	90.7
Ez-kalifikagarria	16	12.4	12	9.3
Guztira	129	100,0	129	100,0

Programen edukien % 75 baino gehiago maila ertainean eta altuan sailkatuta dago, kanpoko ebaluazioari dagokionez; programen 13,2k du maila baxua kanpo-ebaluazioaren



ikuspuntutik. Edukiei nahiz helburuei dagokienez, taulan ez-kalifikagarri gisa sailkatu dira honako hauek: ebaluatu ahal izateko alderdi horiei buruzko informazio nahikoa ez dutenak, kasu askotan termino esplizitueta edo idatziz eginda ez daudelako.

Gomendioa:

- Programa bat aplikatu baino lehen, haren edukien kalitateari buruzko ebaluazio espezializatu bat eskatzea komeni da.

15. taulan, prozedura didaktikoen kalitateari buruzko ebaluazioari dagozkion datuak agertzen dira.

15. taula: Prozedura didaktikoen kalitatea

PROZEDURA DIDAKTIKOEN KALITATEA	Erakundeak kalifikatuta		Kanpokoek kalifikatuta	
	Maiztasuna	Ehunekoa	Maiztasuna	Ehunekoa
Baxua	8	6.2	19	14.7
Ertaina	68	52.7	56	43.4
Altua	35	27.1	23	17.8
Guztira	111	86	98	76
Ez-kalifikagarria	18	14	31	24
Guztira	129	100,0	129	100,0

Datu horiek erakusten dute erakundeen eta kanpoko ebaluazioaren arteko emaitzen desberdintasunik handiena; kanpoko ebaluazioan, edukien kalitateak du maila baxuko ebaluazioen maiztasunik handiena, helburuen eta edukien ebaluazioarekin alderatuta, eta maila altuko maiztasunik baxuena. Hortaz, ebaluazio hori da azaldutakoen artetik defizitarioena. Ebaluazioa baxuagoa izateak ez du esan nahi prozedurek kalitate eskasagoa dutenik berez, ebaluazioa gurasoek gaitasun bat edo hainbat lortzeko prozeduraren eraginkortasunaren ikuspuntutik egin dela baizik. Adibidez, hitzaldi magistral bat bikaina eta gai baten berri emateko eraginkorra izan daiteke, baina ez da bitartekorik eraginkorrena gurasoak gaitasun bat erabiltzen gaitzeko.

Gomendioa:

- Gurasotasun-gaitasunak lortzeko prozedura eraginkorrak erabiltzean aurrera egitea. Horrek estrategia aktiboak, praktikoak eta eguneroko bizitzako egoerei egokituak erabiltzea eragitea dakar. Halaber, norberaren hazkuntza-esperientziari eta pertsonalki ikaskuntza esanguratsuak eraikitzeari buruz gogoeta egitea eragiten du. Ikaskuntza konstruktibistaren ikuspuntua da egokiena gurasoen gaitasunak eraginkortasunez eskuratzeko.

16. taulan, programaren metodologiari buruzko emaitzak agertzen dira.

16. taula: programan erabilitako metodologia

PROGRAMAREN METODOLOGIA	Maiztasuna	Ehunekoak
Banakakoa	33	25,6
Taldekoa	75	58,1
Banakakoa eta taldekoa	12	9,3
Guztira	120	93,0
Ez da aipatzen	9	7,0
Guztira	129	100,0

Gehien erabiltzen den metodologia taldekoa da (programen % 58,1) eta, ondoren, banakakoa (% 25,6) eta mistoa (% 9,3), hurrenez hurren. Taldeko metodologiaren abantaila da banakako metodoak baino erabiltzaile kopuru handiagoari aldi berean erantzuteko aukera ematen duela.

Gomendioa:

- Banakako isilpeko kontsultarako aukera ematea taldeko metodologiaren programen protokoloan.

Hurrengo emaitza programaren oinarri zientifikoei buruzkoa da; haren maiztasunak 17. taulan adierazi dira:

17. taula: programen oinarri zientifikoa

PROGRAMAK OINARRI ZIENTIFIKOA DU	Maiztasuna	Ehunekoak
Ez	14	10,9
Bai	105	81,4
Guztira	119	92,2



Ez da aipatzen	10	7,8
Guztira	129	100,0

Ikus daitekeenez, programen gehiengo zabala (% 81,4) aurkikuntza zientifikoetan oinarrituta dago: hortaz, haien helburuak eta edukiak koherenteak dira garapen psikologikorako familiako babes- eta arrisku-faktoreen arloan ikerketa sistematikoak lortutako emaitzekin. Hala ere, oinarri zientifikoaren mailarik altuena garatzeke dago; hain zuzen ere, eraginkortasuna hartzaile izango den biztanlerian bertan neurtuta egiaztatzen duen ebidentzia enpirikoa lortzen denean garatuko da.

Gomendioak:

- Kalitatezko literatura zientifikotik eratorritako gutxieneko oinarri zientifiko bat duten programak aplikatzea, eta programaren hartzaile izango den biztanleriari berari begira eginak, ahal den neurrian.
- Ebidentzia zientifikoa lortzea, programa bera etengabe ebaluatuz.
- Programa bakoitzaren hartzaile izango den familiako haurren adin-tartearekiko egokitasuna kontuan hartzea.
- Programaren oinarri zientifikoei buruzko txosten bat egitea.

18. taulan, erakundeek programaren berri emateko egindako publizitateari buruzko datuak agertzen dira.

18. taula: programei buruzko publizitatea

PROGRAMAREN PUBLIZITATEA (PAPERA)	Maiztasuna	Ehunekoak
Bai	110	85,3
Ez	7	5,4
Ez du erantzun	12	9,3
Guztira	129	100,0
PROGRAMAREN PUBLIZITATEA (BIRTUALA: UDALAREN WEBGUNEA, BESTE WEBGUNE BATZUK, SAREAK...)	Maiztasuna	Ehunekoak
Bai	106	82,2
Ez	4	3,1
Ez du erantzun	19	14,7
Guztira	129	100,0



Ikusten denez, programa gehienei paperean eta Internet bidez egiten zaie publizitatea. Liburuxka espezifiko baten bidez egiten da publizitatea eta, oso sarritan, erakundeek argitaratutako programen katalogo batean. Kasu gehienetan, publizitateak ez dauka alde zurririk ezarritako aldizkakotasunik.

Gomendioak:

- Programari buruz publizitate jarraitua antolatzea, haren edukiak eta onurak aipatzeko.
- Programaren hedapen-protokoloa haren diseinuan eta aurrekontuan sartzea.
- Programaren hedapen-estrategia bera ebaluatzea.
- Programen publizitateko estrategia koordinatuak garatzea.

19. taulan, programen hartzaileei buruzko datuen emaitzak agertzen dira.

19. taula: programen hartzaileak

PROGRAMEN HARTZAILEAK	EZ Maiz.	EZ %	BAI Maiz.	BAI %	EZ AIP. Maiz.	EZ AIP. %
Programa orotariko familiei zuzendua da?	2	1,6	115	89,1	12	9,3
Programa guraso gazteei zuzendua da?	1	,8	116	89,9	12	9,3
Programa guraso bakarreko familiei zuzendua da?	1	,8	116	89,9	12	9,3
Programa gizarte-egoera zailean dauden familiei zuzendua da?	2	1,6	115	89,1	12	9,3
Programa familia etorkinei zuzendua da?	2	1,6	115	89,1	12	9,3

Maiztasunak ikusita, nabarmena da ikerketan aztertutako programek bokazio unibertuala dutela. Programek eduki zehatzen bat ardatz izanda ere -hala nola, gatazka edo familiako beste aldagai bat-, biztanleria orokorrari zuzenduta daude, aldaera guztiak barne hartzen dituztela.

20. taulan, gurasotasun programak ezartzeari dagokionez erakundeen arteko lankidetzari buruzko datuak agertzen dira.

20. taula: erakundeen arteko lankidetzak

ERAKUNDE PUBLIKO EKIKO LANKIDETZA	Maiztasuna
Bizkaiko Foru Aldundia	1
Gipuzkoako Foru Aldundia	1

Eusko Jaurlaritza	19
Eusko Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundia	1
Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea	6
Euskal Herriko Unibertsitatea	3
Guztira	61
Ez da aipatzen	68

Datuak ikusita, programa gehienak udalek eurek banaka edo era mankomunatuan kudeatzen dituzte; bestalde, Eusko Jaurlaritzak hainbat programa diruz laguntzen ditu, eta beste programa batzuk, berriz, foru aldundiek kudeatzen dituzte, Arabakoak, bereziki. Programen kudeaketari dagokionez, erantzukizuna ez dago beti arduradun beren esku. Agian, gurasotasun jardueren mapak egiteak erakundeen kudeaketarako eta GPen ezarpenari loturiko beste alderdi batzuetarako ildo komunak finkatzen lagun dezake.

21. taulan, programen beste ezaugarri batzuei buruzko datuak agertzen dira.

21. taula: beste ezaugarri batzuk

PROGRAMAREN BESTE EZAUGARRI BATZUK	EZ Maiz.	EZ %	BAI Maiz.	BAI %	EZ AIP. Maiz.	EZ AIP. %
Programa hau beste udal batzuekin lankidetzan garatzen da?	76	58,9	40	31,0	13	10,1
Programa hau GKEren batekin lankidetzan garatzen da?	82	63,6	31	24,0	16	12,4
Familiatan emozioen, hezkuntzaren eta gurasotasunaren arloko gaitasunak sustatzeko programa bat da?	2	1,6	115	89,1	12	9,3
Prebentzio-programa bat da?	10	7,8	107	82,9	12	9,3
Esku hartzeko programa bat da?	81	62,8	36	27,9	12	9,3
Udaleko teknikariek garatzen eta gauzatzen dute programa?	45	34,9	65	50,4	19	14,7
Kontrataturako kanpoko profesionalek garatzen eta gauzatzen dute programa?	30	23,3	81	62,8	18	14,0
Irabazi asmorik gabeko erakundeek garatzen eta gauzatzen dute programa?	44	34,1	67	51,9	18	14,0

Programen % 60 udalek modu autonomoan garatzen dute, eta % 40 inguru beste udal batzuekin lankidetzan garatzen da. Datu horren arrazoia da hainbat udalen artean modu

mankomunatuan ezartzen direla programak. Bestalde, aztertutako programetan, nabarmena da gurasotasunaren izaera, gurasotasun-gaitasunak lortzea baitute ardatz gehienbat, eta, esku hartzeko programa gisa ordez, prebentzio-programa gisa kalifikatuta baitaude, oro har. Programen barne-kudeaketari dagokionez, profil nagusia antolakuntzan udal bakoitzeko teknikariak aritzea dela dirudi, eta edukiak landutako gai bakoitzeko adituen esku uztea maiz.

22. taulan, GPen hartzaile izango den adin-tarteari buruzko emaitzak agertzen dira.

22. taula: programen hartzaile izango diren adin-tarteak

PROGRAMAREN HARTZAILE IZANGO DEN ADIN-TARTEA	Maiztasuna	Ehunekoa
Haurtzaroa	11	8,5
Nerabezaroa	21	16,2
Haurtzaroa eta nerabezaroa	88	68,3
Ez da aipatzen	9	7,0
Guztira	129	100,0

Datuen analisiak erakusten du identifikatutako programen % 5,7 soilik dagoela haurrei berariak zuzendua; % 11,7 da nerabezaroari begirakoak, eta % 50, bi adin-tarte horiei begirakoak. Daturik azpimarragarriena da zero eta hiru urte arteko adin-tarteari zuzendutako programek oso maiztasun baxua dutela.

Gomendioa:

- 0-3 adin-tartean GPen ezarpena nabarmen areagotzea; izan ere, adin-tarte horretan prebentzio-ekintzak duen eraginkortasuna kontuan hartuta, lehentasunez aplikatu beharreko neurria da.

23. taulan, programa bakoitzak GCOren (Gurasotasunerako Curriculum Optimoa) edukiekiko duen egokitzapen-maiztasunari buruzko datuak adierazten dira:

23. taula: GCOrekiko egokitzapena

GCO (GURASOTASUNERAKO CURRICULUM OPTIMO)	EZ Maiz.	EZ %	BAI Maiz.	BAI %	EZ AIP. Maiz.	EZ AIP. %
Gurasoak imitazio-eredu gisa	6	4,7	98	76,0	25	19,4

Jolasaren praktika	13	10,1	91	70,5	25	19,4
Frustrazio optimoaren praktika	3	2,3	100	77,5	26	20,2
Adierazkortasunaren eta emozioen erregulazioaren sustapena	7	5,4	96	74,4	26	20,2
“Dezentrazio kognitiboaren” sustapena	6	4,7	97	75,2	26	20,2
Hezkuntza-estilo demokratikoaren praktika	6	4,7	97	75,2	26	20,2
Autoestimuaaren sustapena	7	5,4	96	74,4	26	20,2
Helduen eta seme-alaben erantzukizun pertsonalean oinarrituriko hezkuntza	0	0	104	80,6	25	19,4
Gatazkaren eraginpean egotearen erregulazioa	14	10,9	90	69,8	25	19,4
Gizarte-harremanen sustapena	6	4,7	97	75,2	26	20,2
Familiaren eta eskolaren arteko harremanaren sustapena	15	11,6	88	68,2	26	20,2
Hazkuntzan aitak parte-hartze aktiboa izatea	15	11,6	88	68,2	26	20,2
Kalitatezko ordezkotza	27	20,9	76	58,9	26	20,2
Garapen kognitiboaren estimulazioa	19	14,7	83	64,3	27	20,9

Oro har, balorazioa ona da, programa gehienek gurasotasunaren praktikan funtsezko aldagaien eta gaitasunen lanketa barne hartzen duten neurrian, baina programetan zenbait edukiren presentzia lausoa dela antzeman da. Honako hauena, hain zuzen: “Kalitatezko ordezkotza”, “Garapen kognitiboaren estimulazioa”, “Hazkuntzan aitak parte-hartze aktiboa izatea”, “Familiaren eta eskolaren arteko harremanaren sustapena”, “Gatazkaren eraginpean egotearen erregulazioa” eta “Jolasaren praktika”. Halaber, egiaztatu da identifikatutako programetan eduki batzuk ez daudela zehaztuta GCOn, nahiz eta GCOko zenbait aldagaitan eta gaitasunetan barne hartuta egon. Hala gertatzen da gatazkak modu eraginkorrean ebaztea ardatz duten programekin; ardatz hori GCO hezkuntza-estilo demokratikoaren praktikan sartuta dagoela hartzen da. Hala ere, gatazkaren eraginpean ez egotearen garrantzia gurasotasun programa generiko guztietan txertatu beharreko edukia da.

Era berean, azpimarratu behar da “Garapen kognitiboaren estimulazioa” edukiaren presentzia baxuak adierazten duela ez direla ezagutzen familia-ingurune egokiak bidera dezakeen garapen intelektualaren sustatze-aukera guztiak.

Gomendioak:

- GPetan honako eduki hauen presentzia sustatzea:
 - "Kalitatezko ordezeko zaintza"
 - "Hazkuntzan aitak parte-hartze aktiboa izatea"
 - "Familiaren eta eskolaren arteko harremanaren sustapena"
 - "Gatazkaren eraginpean egotearen erregulazioa"
 - "Jolasaren praktika"
- Familiak prebentziorako eta haurren garapen psikologikoa indartzeko duten ahalmenaz ohartaraztea.

24. taula: programek GCOrekiko duten egokitzapen-mailari buruzko maiztasunak

GURASOTASUNERAKO CURRICULUM OPTIMOAREKIKO EGOKITZAPEN-MAILA	Maiztasuna	Ehunekoak
,00	25	14,2
28,59	3	1,7
35,71	2	1,1
42,86	2	1,1
50,00	3	1,7
57,14	3	1,7
64,29	2	1,1
71,43	2	1,1
78,57	6	3,4
85,71	2	1,1
92,86	12	6,8
100,00	67	38,1
		73,3
Ez da aipatzen		26,7
Guztira	129	100,0

Datuen lehenengo irakurketan ikusten denez, programen % 38 GCOra egokitzen da % 100ean, eta programen % 50 inguruk % 75eko egokitzapen-maila edo maila handiagoa du. Oso garrantzitsua da aipatzea GCOrekiko inolako egokitzapenik adierazten ez duten %14ko programa-blokeak ez direla programa defizitarioak; aldiz, bestelakoak direla ikuspuntu teorikoari eta metodologikoari dagokienez. Oro har familiako esku-hartzearen arloan eta bereziki gurasotasunaren arloan dauden irizpide-aniztasuna islatzen du gertaera horrek.

Gertaera hori beste atal batean dugu, nolahi ere, ikerketaren balorazio kualitatiboari buruzkoan, hain zuzen.

Ondorio kualitatiboak:

Datu kuantitatiboez harago, ikerketa honen emaitzek zenbait ebaluazio kualitatibo ere behar dituzte, ezinbestekoak baitira gurasotasunaren arloan oinarritutako ekintza-proposamenak egiteko. Hauek dira ondorio nagusiak:

Lege-esparruaren eta gurasotasunaren edukien ezagutzarik eza: ikerketa honetan elkarrizketatutako profesional askok familien prestakuntza eta programak ezartzean prestakuntza eta esperientzia handia izan arren, ikusten da, oro har, ez dituztela menderatzen gurasotasunaren arloko Europako lege-esparru berria, haren edukiak eta ikuspuntua. Lehen aipatu bezala, gurasotasunaren arloko ekintzek ikuspuntu unibertsala dute, ez dituzte ardatz arriskuan dauden biztanleak soilik eta osasun publikoaren estrategien hurbilekoak dira. Arlo horretan lan egiten duten profesionalen profila askotarikoa denez, oso beharrezkoa da prestakuntza espezifikoko ekimenak egitea, iraunkorki.

Gomendioak:

- Familiako esku-hartzeen arloan diharduten profesionalentzako prestakuntza- eta hedapen-estrategiak garatzea, gurasotasunaren ikuspuntuan, edukietan eta lege-esparruan trebatzeko.
- GPen baliabide-banku bat jartzea profesionalen esku.

Gurasotasunaren arloan alde zuzenetik finkatutako curriculum baten gabezia

Gurasotasuna, seme-alaben garapen psikologiko osasungarria sustatzeko gurasoen ekintzen eta praktiken multzo gisa ulertuta, gurasoek eskuratu beharreko gaitasun multzo batean zehaztu behar da; hain zuzen, gaitasun horiek babes-faktoreak indartuko dituzte eta familia-testuinguruei loturiko arrisku-faktoreak murriztuko, garapen psikologikoaren kalitatean eragiten duten inguruneak diren heinean. Arlo honetako ikerketak familia-testuinguru egokiaren aldagaiak zein diren zehaztuta —hau da, garapenerako ingurune onuragarritzat hartu ahal izateko familia batek bete behar dituen adierazleak zein diren—, galde daiteke, ikerketa honen funtsezko oinarrietako bati jarraituz, zein den biderik eraginkorrena EAEko familiek eduki horiek bereganatu ditzaten eta beren seme-alabak modu egokian hezteko familia gaituak bihurtzeko.



Gurasotasunaren arloan ekintza politikoen helburua familiek lehen aipatutako gaitasunen multzo hori barneratzea bada, nabarmena da lan honetan aztertutako programen multzoaren lehenengo balorazioa: oso programa gutxik erabiltzen dute Gurasotasunerako Curriculum Optimoa (GCO) osatzen duten gaitasunen multzoa familiei helaraztea barne hartzen duen ikuspegi globala. Programa gehienek familia-testuinguruaren gaitasun edo ezaugarri bat hartzen dute ardatz, eta aitaren parte-hartzeari edo jolasaren garrantziari buruzko ekintza-lerroak lantzen dituzte, adibidez; aldiz, ez dute modu bateratuan eta sistematikoan lantzen familiek seme-alaben hezitzaile gaituak izateko behar duten trebakuntza osoa. Gertaera horrek, gainera, edukien eta politika horien hartzaile diren biztanleen banaketa dakar; gerta liteke zenbait familiak gaitasun garrantzitsu batean behar adinako trebakuntza jasotzea, eta era berean garrantzitsuak diren beste gaitasun batzuetan ez trebakuntzarik ez behar adinako informaziorik ez jasotzea.

Gurasotasun politikak biztanleria orokorra ardatz duten ekintzat hartuz gero, prebentzioari eta osasun publikoari loturiko funtsezko ikuspuntu argi batean oinarrituz gero, are nabarmenagoak dira gurasotasunaren arloan alde aurretik ezarritako curriculum baten gabeziaren arazoa eta politika horien hartzaile diren biztanleen banaketaren arazoa. Arrisku-familiekin lan eginez gero, erabat koherentea da familiek hezkuntzako oinarrizko gaitasunak lortzeko trebatzea; funtsezko prebentzioaren arloa lantzean, ordea, funtsezkoa da gai zehatz bati buruzko informazio eta trebakuntza garrantzitsu guztia modu eskuragarrian eta eraginkorrean iristea hartzaile diren biztanle guztiei. Ikerketa honen esparruan, biztanleria hori seme-alabak hezteko erantzukizuna duten EAEko familia guztiek osatzen dute.

Azterketa horretatik abiatuta, lan honetatik eratorritako proposamenen bloke batek biztanleria orokorrari zuzendutako programak ezartzea gomendatzen du, programa horien helburua familiek Gurasotasunerako Curriculum Optimoa deritzona bereganatzea izanik. Gizarte-hezkuntzako premiazko egitekoa da curriculum behar bezala hedatzea, behin-behineko protokolo sistematiko batean zehaztutako mota askotako estrategiak erabiliz. Eta xede hori lortzeko, oinarrizkoa da erakundeen arteko inplikazioa eta koordinazioa, hala nola gurasotasunaren trebakuntza sartzea hezkuntzaren eta osasunaren arloan, oso adin goiztiarretik.



Gomendioak:

- Familiei Gurasotasunerako Curriculum Optimoa eraginkortasunez helarazteko koordinazio-estrategiak garatzea erakundeen artean.
- Gurasotasun-gaitasunetan gaitzeko prebentzio-programen aplikazioen esperientzia pilotuak garatzea, langile espezializatuek etxeetara egindako bisitetan oinarrituta.

Familien beren eskakizunen neurrirako familia-prestakuntzarako planteamenduak ugaritzea

Lehen aipatutako ondorioari lotuta, garrantzitsua da esku-hartzearen ikuspuntuak, biztanleria orokorrari nahiz biztanleria zehatz bati zuzenduak, bateragarriak izatea. Ikerketa honetan, hainbat ikuspuntu dituzten programak eta jarduerak agertzen dira. Oro har, ondorioztatu daiteke hitzaldi edo idatzitako dokumentu gisako informazio-hedapeneko jarduerak biztanleria orokorrari zuzenduta daudela eta estrategia egituratuagoak, hala nola programak, biztanleria zehatzei bideratuta daudela. Biztanleria jakin bati zuzendutako jarduerak familia talde batek egindako eskaera jakin batetik eratortzen dira, baita familiako esku-hartzeen arloan lan egiten duten erakundeek prestakuntza-premia bat antzematek ere. Jarduera horiek guztiz justifikatuta daude; izan ere, premia bat partekatzen duen biztanleria edo talde batek egindako eskaera bati erantzuten diote.

Gomendioak:

- Biztanleria orokorrari eta biztanleria zehatzei begira esku hartzeko estrategiak bateragarri egitea.
- Gurasotasun programa eta ekintza guztietan Gurasotasunerako Curriculum Optimoko funtsezko edukien erreferentzia sartzea.

Gaitasunei dagokienez programen helburuen antolakuntza kontzeptualik eza

Ikerketa honetan aztertutako gurasotasunaren arloko programak eta jarduerak askotarikoak dira eta hainbat helburu, eduki eta metodologia dituzte. Horietako zenbaitek familia hartzaileentzako modu egokian eta ulergarrian azaltzen dituzte beren helburuak, eta horrek eraginkortasuna ematen dio komunikazioari. Hala ere, profesionalen artean komunikatzeko erabili beharreko hizkuntza teknikoari dagokionez, gaitasunen arloan hizkuntza komuna erabili beharko lukete. Horrek profesionalen arteko komunikazio zehatza



erraztuko luke eta, horrez gainera, programen ebaluazio zorrotzagoa egiteko bidea emango luke. Gurasotasun-programen helburuak eta edukiak gaitasun modura egituratzea guztiz bateragarria da gurasoei zuzendutako prestakuntza-prozedurekin, talde-izaerako planteamendu dinamikoak barne.

Gaitasunen hizkuntza bateragarria da informazioa soilik hedatzeko planteamenduekin ere, hala nola hitzaldi batekin, betiere jarduera horretan prestakuntza-helbururik baldin bada eta parte-hartzaile bakoitzarentzako jarduera praktikoa, parte-hartzaile eta esanguratsu bat egiten baldin bada, amaierako ebaluazio batez gainera.

Programen materialei dagokienez ere, egiaztatu da aldakortasun handia dagoela: zenbait programek eta jarduerak publizitate-helburuekin soilik argitaratzen dituzte materialak; beste batzuek, berriz, gurasotasunaren arloko kalitatezko edukiak dituzten materialak lantzen dituzte eta inprimatuta banatzen dituzte etxeetara, edo erakundeen Webguneetan jartzen dituzte.

Gomendioak:

- Programen helburuak eta edukiak gaitasunen hizkuntza komunera egokitzea.
- Gurasotasunaren arloan kalitatezko edukiak dituzten material inprimatuak edo digitalak lantzea, termino ulergarrietan formulatuta, eta familiei banatzea, inprimatuta edo modu digitalean.

Gaur egungo programak aurreko ikerketetan agerian gelditutako hezkuntza-eskaerei egokitzea

Gogoratu behar da gurasotasunaren arloko praktikan ekintza nagusiak drogamendekotasunaren prebentzioarekin lotutakoak direla; hori erakutsi du ikerketa honek (ikus 5. taula), eta gurasoen praktiken eta kontsumo-jokabidearen nahiz, oro har, jokabidearen autoerregulazioaren ildo horretatik, erakunde-politikek premia zehatz bati erantzun egokia eman diotela egiaztatu da. Beste kontu bat da politika horiek biztanleengan duten benetako helmenaren haztapena eta prebentzio-eraginkortasunaren ebaluazioa.

Txosten honen 3. atalean aipatutako familia-egoeretako bat guraso bakarreko familiei bideratutako babes-premiena da. Kasu askotan, familia horietan gurasoa ama eta baliabide ekonomiko eta hezkuntza-baliabide urriko pertsona izaten denez, osoko babes sistemikoen



eta hezigarrien arloko programa espezifikoak eskaini beharko litzaizkieke. Oro har, familia horiek ez dute programa espezifikorik, baina horientzat oso garrantzitsuak diren gaiak ardatz nagusitzat dituzten eta dagoeneko indarrean dauden programen onuradunak izan daitezke, hala nola, familien topaguneak edo hainbat erakundetan eskaintzen diren banaketa- eta dibortzio-prozesuetan laguntzeko programak. Besteak beste, aipatzekoa da Eusko Jaurlaritzak herritarrei eskainitako familia-bitartekaritzaren zerbitzua.

Bestalde, ikusi da ikerketa honetan antzemandako jardueretan eta programetan behar bezala jasota ez dauden gurasotasunaren hainbat eduki garrantzitsu daudela. Horietako bat da, adibidez, sexu-hezkuntza; programaren bateko eduki nagusi gisa agertzen da, baina ez du beharko lukeen presentzia erregular eta egituraturik, batez ere nerabegarotik aurrera. Egia da hainbat ikastetxetan sexu-hezkuntzako programa onak daudela, baina sexualitateari buruzko hezkuntzako eta lehen mailako prebentzioko edukiek gurasoen prestakuntzaren curriculumean agertu beharko lukete. Antzeko zerbait gertatzen da beste eduki batzuekin ere, hala nola balioen transmisioarekin nahiz haurrak eta nerabeak pantailaren eraginpean egotearen eta Interneten askotariko erabileraren erregulazioarekin.

Txosten honetako 3. puntuan aipatutako gehiegizko babesaren praktikaren diagnostikoari ematen zaion erantzunari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren 2011b eta 2011c dokumentuetan oinarrituta, egiaztatu da gai hori lantzen duten gurasotasun jarduera eta programa asko daudela EAEn; horietako ekimen gehienek ardatz nagusia uneri goiztiarrenetatik arauak eta mugak ezartzearen garrantziari buruzko edukiak hedatzea da. Horri dagokionez, adituen gomendioa da haurretan erresilientzia sustatzea dakarren frustrazio optimoaren praktika lantzea. Laburbilduz, haurrek frustrazioaren tolerantziarako eta beren jokabidea autoerregulatzeko gaitasunak eskuratzea da xedea.

Aurreko paragrafoan planteatutako hezkuntza-gaia oso sakona da eta ekintza-estrategia sortzaileak eta kontrastatutako eraginkortasunekoak eskatzen ditu, gure gizarteak gurasoak axolagabe edo hezitzaile txartzat hartzeko duen joera zabalaz askoz harago. Beharrezkoak diren aldaketak modu positiboan formulatutako estrategiekin eta modu didaktiko eraginkorrez lagundutakoekin egingo dira. Hori dela eta, herritarrek giza hazkuntzari buruzko oinarrizko ezagutza kritiko batzuk eskuratzea funtsezkoa da, familiekin esku-hartzeko ikuspuntutik.



Proposatutako hezkuntza-erronka konplexua da, hezkuntza erlijiosoak egiten zuen jokabidea autoerregulatzeko eta balio etikoak eskuratzeko funtzioa gero eta lausoagoa baita gero eta laikoagoa den gizarte batean, hala nola gaur egungoan. Hezkuntzaren arteak pertsonen arteko elkarbizitza osasungarria errazteko xedea du, eta erronka zientifiko bati erantzun behar dio horretarako. Kontuan hartu behar da balioen autoerregulaziorako eta garapenerako gaitasun eskasa dagoela haurtzaroan eta nerabezaroan hautematen diren arazo askoren oinarrian, hala nola kontsumoa, errendimendu akademiko baxua, gizartearen aurkako jarrera, pantaila berriekiko mendekotasuna, etab. Autoerregulaziorako gaitasunaren jatorria hurrek barneratzen dituzten arauen eta mugen kanpo-kontrola da, eta barneratze hori iraunkorra izatea da hezkuntza-erronka. Arauak eta mugak modu eraginkorrean ezartzeak denbora eskatzen du, eta pentsamolde jakin bat, eta familia askok ez dituzte ez bata ez bestea; hori dela eta, erabateko garrantzia dute neurri sistemiko-ekologikoek, hala nola kontziliazioak.

Gomendioak:

- Gurasotasunaren praktika neurri sistemikoen eta ekologikoen bidez sustatu behar da, hala nola kontziliazioa, laneko malgutasuna eta abar, familiek beharrezkoa den denbora eta baliabideak izan ditzaten beren hezkuntza-eginkizuna garatzeko.
- Gurasotasunaren hezkuntza-neurriak eta neurri sistemikoak koordinatzen dituzten familientzako erakunde-arteko planak egiteko eta gauzatzeko jarduera komunitateetan finkatu behar da.
- Gurasoen prestakuntza sustatu behar da honako gai hauei buruz: balioen garapena, sexu-hezkuntza, pantailen eraginpean egotearen erregulazioa eta GPetan gure gizartearen dagoen familia-aniztasunari egokitutako eduki espezifikoak.

Familiaren eta eskolaren artean elkarrekin kudeatutako programen gabezia

Gurasotasun ekimen eta programa asko ikastetxean gauzatzen badira ere, horrek ez du esan nahi bi erakundearen artean lankidetzaren eraginkorra dagoenik; are gehiago, nolabaiteko gatazka-egoera bat dagoela esan daiteke: hezkuntzako profesionalek hezkuntza-jarduera handiagoa eskatzen diete familiei, hurrei elkarbizitzako eta autonomiako gutxieneko ohitura batzuk falta zaizkiela egiaztatzen baitute eta familiek, berriz, hezkuntzako esku-hartze handiagoa eskatzen diote eskolari. Arazo hori bereziki nabarmena egin da



adingabekoak eskolan hasteko adina 4 hilabetera aurreratu denean, hala nola EAEn haurreskolak sare publikoan sartu direnetik.

Nabarmena da nolabaiteko liskar-egoera hori gainditu egin behar dela eta familiaren eta eskolaren artean partekatutako curriculum bat zehaztea premiazkoa dela, gurasotasunaren arloko gai tradizionalai dagokienez. Gurasotasun politiken hartzaile nagusia familia izan arren, egia da haurrek ordu asko igarotzen dituztela familia-ingurunetik kanpo, oso adin goiztiarretik. Gaur, beste inoiz baino gehiago, egia da afrikar atsotitz hau: “Haur bat hezteko, tribu oso bat behar da”. Familiaren eta eskolaren arteko hezkidetzaren premia bereziki larria da elkarbizitzako balioen transmisioaren arloetan eta sexu- eta genero-hezkuntzan.

Gomendioa:

- Familiaren eta eskolaren arteko hezkidetzako hezkuntza-programak sortzen aurrera egitea, bereziki 0 eta 3 urte arteko tarte ebolutiboan.

Gurasoak trebatzeko eredu tradizionala gainditzeko premia

Profesionalek familiako esku-hartzearen eta gurasoen trebakuntzaren arloan egindako hainbat elkarrizketatan, agerian gelditu da gurasoen eredu tradizionala (guraso-eskolak) gainditzeko premia, familia multzo oso jakin baterako prestakuntza espezifiko bat baita, azken batean. Horrek esan nahi du gurasotasunaren arloko prestakuntzaren onuradun izan beharko luketen familiak trebakuntza espezializatu horretatik kanpo geratzen direla.

Gomendioa:

- Familietara oro har heltzea xede duten gurasotasunaren trebakuntzarako estrategiak garatzea.

Ikastetxe pribatuetan gurasotasunaren arloko programei eta jardueri buruzko emaitzak

Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeetan gurasotasun programak identifikatzeko 45 ikastetxe aukeratu dira ausaz (itunpekoak edo/eta pribatuak), probintzia bakoitzeko 15.

Horrez gainera, BIGErekin harremanetan jarri gara, erakunde horrek familiei begira programarik sustatzen ote zuen jakiteko. 45 ikastetxeetatik, 12 ikastetxeren erantzuna jaso da; hortaz, parte-hartzea % 34,2koa izan da: Bizkaiko 6 ikastetxe (% 17,14), Gipuzkoako 4 ikastetxe (% 11,4) eta Arabako 2 ikastetxe (% 5,7). Horrez gainera, harremanetan jarri ginen bi ikastetxek proiektuan ez parte hartzea erabaki dute, denbora faltagatik.

Landa-laneko prozesuan, gurasotasuna sustatzera bideratutako 11 programa edo trebakuntza zehatz identifikatu dira: 7 programa Bizkaian, 3 programa Gipuzkoan eta 1 Araban. 11 programa edo trebakuntza zehatzetatik, hitzaldiak dira 7, eta 2, berriz, programak. Hitzaldiek honako topiko hauek lantzen dituzte: "Hezkuntza afektibo-sexuala", "Interneten erabilera", "Drogen arriskuen prebentzioa" eta "Gurasoentzako lotura interesgarriak". Programei dagokienez, horietako bat Kristau Eskolarena da, hain zuzen: "IEP-FEAC Sendi Irakaslegoa: elkar partekatuz/Familia Escuela: Acción compartida: Familiaren eta ikastetxearen arteko lankidetzaren sustatzeko hezkuntza programa/ Programa educativo para fomentar la colaboración entre familias y escuela". Beste programa familia-eskolari buruzkoa da eta han, gurasoen eskaeren arabera gaiak lantzen dituzte.

Azpimarratu behar da lehen aipatutako familien trebakuntza zehatzerako erantzukizuna guraso-elkarteek dutela ikastetxeetan, nahiz eta kasuren batean ikastetxeak berak hartzen duen erantzukizun hori.

Gomendioa:

- Itunpeko ikastetxeetako gurasotasun ekintzak erakunde publikoek garatutako estrategia komunean sartzea.



7. IKEREKTAREN MUGAK ETA INDARGUNEAK. ETORKIZUNEAN GARATU BEHARREKO EKINTZAK

Ikerketa honen mugei dagokienez, profesional parte-hartzaileekin elkarrizketak egin ahala, informazioa jasotzeko tresnaren beraren gabeziak agerian gelditu direla esan beharra dago, lehenik eta behin; hala ere, haiek eskainitako informazio garrantzitsu guztia sartu da txosten honetan, bai atal kuantitatiboetan, bai azterketa kualitatiboan. Halaber, esan behar da ikerketan kontuan hartutako programa gehienek ardatza biztanleria orokorrari zuzendutako jarduerak diren arren, horietako zenbaitek aurretiko arrisku-familia gisa har daitezkeen familiekin lan egiten dutela.

Aipatzeko alderdia da, orobat, ikerketa egin den laginaren adierazgarritasuna; EAEko gurasotasun programa eta jarduera gehienak barne hartzen ditu, baina ez da osoa ehuneko ehunean. Kontuan hartzeko beste elementu bat da informatzaileak ez direla eragile independenteak, eta haien erantzunak gizarte-nahiak gidatuta egon daitezkeela, neurri batean. Hala ere, ikerketa honetan egindako erregistroa eta ebaluazioa adierazle kuantitatibo eta kualitatibo ahal bezain zorrotzetan oinarritzen dira.

Ikerketaren indarguneei dagokienez, berriz, azpimarratu behar da programak praktikan jartzen dituzten profesional arduradunekin lankidetzan egindako landa-lanaren bidez lortu direla datuak. Gurasotasun programetarako adierazle-sistema berri bat eta Gurasotasunerako Curriculum Optimoa (GCO) proposatzea dira ikerketa honen ekarpen esanguratsuak.

Azkenik, nabarmendu behar da gurasotasun programen identifikazioa eta ebaluazioa EAEko 25.000 biztanletik beherako udalerriekin osatzea komeni dela. Era berean, etorkizunean aplikatutako arlo honetako programak ikerketa honetan proposatutako adierazle-sistemaren arabera ikuskatu beharko lirateke.



8. GURASOTASUN PROGRAMAK EBALUATZEKO ETA EZARTZEKO ADIERAZLEEN PROPOSAMENA

Atal honen helburua gurasotasun programen (GP) arloan lan egin nahi duten profesionalentzako erreferentzia- eta kontsulta-tresna bat izatea da. *Gurasotasun programak ebaluatze eta ezartzeko adierazle proposamena* lan honetako hainbat ataletan azaldutako gurasotasunaren praktikari buruzko oinarri teorikoetatik eta metodologikoetatik abiatuta egin da. Bestalde, adierazle sistemak EAEn aplikatutako programak eta jarduerak identifikatzeko eta aztertzeko prozesuan lortutako emaitzak oinarri harturik txosten honetako 6. atalean egindako gomendio guztiak biltzen ditu.

25. taula: gurasotasun programen kalitate-adierazle proposamena

GURASOTASUN PROGRAMEN KALITATE-ADIERAZLEEN PROPOSAMENA	
Balorazio orokorra	<ul style="list-style-type: none"> • Gaitasunen terminoen arabera osatutako hiztegia. • Gaitasunen argitasuna eta zehaztasuna.
Helburuak	<ul style="list-style-type: none"> • Modu laburrean formulatzea, eta kontzeptualki baztertzailleak izatea. • Lorpen-mailaren adierazle neurgarriak.
Edukiak	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptuen argitasuna eta zehaztasuna. • Edukien sakontasuna.
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> • Baden edo ez. • Helburuekiko eta edukiekiko koherentzia tematikoa. • Kontzeptuen argitasuna eta zehaztasuna.
Didaktika	<ul style="list-style-type: none"> • Estrategia aktibo eta praktikoak erabiltzea. • Eguneroko bizitzako egoera errealetara egokitzea. • Hazkuntza-esperientziari berari buruz gogoeta egitea. • Pertsonalki adierazgarriak diren ikaskuntzak eraikitzea. • Ikuspuntu konstruktibista.
Formatu mistoa	<ul style="list-style-type: none"> • Programa presentzialen edo taldekako programen espazio konfidentzial bat (<i>on-line</i> erakoa) egotea. • <i>On-line</i> programetan aurrez aurreko laguntza egotea.
Oinarri zientifikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Ikerlanetatik datozen antzeko programen oinarri zientifikoak. • Programa bera etengabe ebaluatuta ebidentzia zientifikoa eskuratzea. • Programa bakoitza hartzaile izango diren familietako neska-mutilen adin-tartera egokitzea. • Programaren eraginkortasunari buruzko ebidentzia zientifiko espezifiko (programak ebaluatzeari buruzko datu-baseetan

	oinarritua).
Ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Programen ebaluazio independentea (ahal bada, kanpoko eragileek eginga). • Programa ezarri aurretik, kanpoko txosten espezializatu bat eskatzea. • Erabiltzailearen gogobetetasun-mailarekin lotuta ez dauden bestelako ebaluazio-prozedurak erabiltzea. • Programaren ebaluazioa ezarpenaren diseinu metodologikoan eta aurrekontuan sartzea. • Programaren ezaugarrien eta hartzaileengan duen eraginaren arteko atzeraelikadura-sistema bat ezartzea (ikerketa eta ekintza). • Programen ezarpena luzatzeko irizpide objektiboen sistema. • Programaren helburuak, edukiak eta didaktika ebaluatzerakoan, epaileen arteko fidagarritasunaren prozedura erabiltzea. • Erakundearen eta kanpoko ebaluatzailearen artean ebaluazio-prozesu paraleloak martxan jartzea. • Programa bakoitzaren eraginkortasunari buruzko datu-baseak kontsultatzea. • Efikazia baloratzea: programaren ebaluazioan RCT sistema ezartzea (Randomized Control Trial). • Eraginkortasuna ebaluatzea: programa ezartzeak zer nolako gizarte- eta ekonomia-eragina duen estimatzea.
Erakunde-kudeaketa	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasotasun programak koordinatuta ezartzera eta baliabideak optimizatzen bideratutako erakunde-koordinazioa. • Erakundeen barneko eta arteko programen bikoiztasuna saihestea eta zerbitzuak modu mankomunatuan eskain daitezkeen bultzatzea.
Aurrekontu-hornidura	<ul style="list-style-type: none"> • Bikaintasun-mailako programak gauzatzeko behar adinako aurrekontu-hornidura: ezarpen egokia, ebaluazio zorrotza eta publizitate jarraitua.
Hizkuntza-eskaintza	<ul style="list-style-type: none"> • Programak elebitan ezartzea. • Etorrinen biztanlerian dauden hizkuntza eta kultura anitzekiko sentikortasuna.
Ezarpenaz arduratuko direnen profil profesionala	<ul style="list-style-type: none"> • Gurasotasunaren inguruko legedia eta edukien gaineko trebakuntza espezifikoak. • Gaitasun didaktikoei buruzko trebakuntza espezifikoak.
Publizitatea	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen mailako prebentziorako biztanleria orokorrerako programak behar bezala hedatzea. • Programaren publizitate jarraiturako estrategiak, haren eduki eta erabilgarritasuna aipatuta. • Programaren publizitatea hedatzeko protokoloa haren diseinu eta



	<p>aurrekontuan txertatzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Programaren hedatze-estrategia ebaluatzea. • Sormena eta eragin mediatikoa izango dituen publizitate-diseinua. • Programen publizitaterako erakunde arteko estrategia koordinatuak garatzea.
Gurasotasunerako Curriculum Optimoa (GCO) egokitzea	<ul style="list-style-type: none"> • Programen helburu, eduki eta materialen ebaluazioan gurasotasunaren edukietara egokitzeko irizpidea txertatzea (ikus GCOri buruzko eranskina). • 0-3 bitarteko adin-tarteari begirako GPak lantzea. • Gurasotasunerako Curriculum Optimoa gaur egungo familia-aniztasunera eta kulturartekotasunera egokitzea. • Profesionalek gurasotasunean esku hartzeko baliabideak erabili ahal izatea. • Profesionalei GCOren inguruko eduki eta trebetasunen gainean etengabeko trebakuntza ematea.
Gizarte- eta komunitate-laguntza	<ul style="list-style-type: none"> • Familia eta lana uztartzeko neurriak: ordutegien malgutasuna, telelana. • Amatasun- eta aitatasun-bajak. • Hazkuntzarako eszedentziak.
Familiaren eta eskolaren arteko hezkidetza	<ul style="list-style-type: none"> • Familiak eta eskolak partekatzen dituzten curriculum-edukiak identifikatu eta ezartzea.
Alderdi etikoak	<ul style="list-style-type: none"> • Gizarte Zientzietako eta Hezkuntzako profesionalen kode deontologikoa erabiltzea. • Baimen informatua eskuratzea, hala behar denean. • Datu profesionalen konfidentziasuna bermatzea.



9. GURASOTASUNERAKO CURRICULUM OPTIMOA

Gurasotasunerako Curriculum Optimoak kalitatezko familia-testuinguru baten berezko gaitasun eta ezaugarri guztien sintesi-proposamen bat izan nahi du. Proposamen hori osatzeari begira, familia-testuinguruak garapen psikologiko osasungarria estimulatzeko duen ahalmena ulertu da kalitatezko familia-testuingurutzat eta familiako esku-hartzearen arloan literatura zientifikoak identifikatutako babes-faktoreak sustatzen dituzten eta arrisku-faktoreak arintzen dituzten irizpideak hartu dira abiapuntu, lan honen hasierako ataletan azaldutako moduan. GCO lau ataletan banatuta aurkezten da. Lehenengo hiru atalek gurasoek hartu beharreko gaitasunekin lotutako garapena sustatzeko baldintza egokiak jasotzen dituzte. Laugarren atalean, berriz, zeharkako gaitasunak deritzenak bildu dira, hain zuzen, lehenengo hiru ataletan azaldutako gaitasun guztiak modu egokian ezartzeko funtsezko hainbat alderdi, espezifikoki gurasotasunaren arlokoak izan ez arren.

26. taula: Gurasotasunerako Curriculum Optimoa

ALDAGAIA	GAITASUNAK	BILAKAERA-ALDIA	MAILA SISTEMIKOA
Garapen kognitiboa eta linguistikoa			
Ikaskuntza estimulatzea	<u>Ezagutzazkoa:</u> ikaskuntzarako baliabideak edukitzearen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> ikaskuntzaren estimulaziorako behar diren materialak erabiltzeko gaitasuna.	Lehen haurtzarora, haurtzarora eta nerabezarora	Exosistema Mikrosistema
Imitazio-eredu berriak eskaintzea	<u>Ezagutzazkoa:</u> garapen psikologikoan imitazioak duen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> ikaskuntza berriak emateko estimulu berriak eskaintzeko gaitasuna.	Haurtzarora	Exosistema
Garapen kognitiboa estimulatzea	<u>Ezagutzazkoa:</u> prozesu kognitiboak eta haiek estimulatzeko moduak ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> garapen kognitiboa estimulatzeko gaitasuna: trebetasun metakognitiboak sustatzea, euskarri-praktika, testuingurutik ateratzea eta arrisku-arauak aplikatzea.	Haurtzarora	Mikrosistema
Hizkuntza-garapena	<u>Ezagutzazkoa:</u> hizkuntzaz jabetzeko prozesua eta hura estimulatzeko moduak	Haurtzarora	Exosistema Mikrosistema



estimulatzea	ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : hizkuntza-garapena estimulatzeko gaitasuna: zuzenketa kontingentea ipuinak irakurtzea eta istorioak kontatzea.		
Jolasa estimulatzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : jarduera ludikoaren garrantzi ebolutiboa ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : jolas sinbolikoa, neba-arreben arteko jolasa eta familiaren baitako jolasa sustatzeko gaitasuna.	Haurtzaroa	Mikrosistema
Gogamenaren teoria estimulatzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : besteen lekuan jartzeko gaitasuna estimulatzearen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : besteen nahiei, asmoei eta emozio-egoerei erreferentzia egiteko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Heldutasun akademikoa estimulatzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : eginkizun akademikoetan laguntzearen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : zalantzak argitzeko, laguntza emateko eta denbora eskaintzeko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Garapen sozioemozionala			
Gurasoek haurren gizartekoitasun-arekiko duten interesa	<u>Ezagutzazkoa</u> : garapen-prozesuan gizarte-harremanek duten garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : haurren gizarte-harremanak sustatzeko gaitasuna, gizarte-elkarreragina irakatsiz eta praktikatuz.	Haurtzaroa	Exosistema Mikrosistema
Heldutasun soziala estimulatzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : gizarte-jokabideko formen erabilgarritasuna ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : gizarte-adeitasuneko arauak transmititzeko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Exosistema Mikrosistema
Arauak eta mugak ezartzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : arauak izateak duen hezkuntza- eta moldaera-balioa ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : portaera-arau argi eta egonkorak ezartzeko gaitasuna, modu sendoan eta objektiboan.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Pentsamendu kritikoa sustatzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : pentsamendu gogoetatsu eta autonomia garatzearen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : jarrera kritikoa eta burujabea sustatzeko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Makrosistema Mikrosistema



Autonomia estimulatzea	<u>Ezagutzazkoa:</u> jokabide autonomoen garapenaren esanahia ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> autonomia funtzionala eta emozionala sustatzeko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Autoestimua estimulatzea	<u>Ezagutzazkoa:</u> garapen pertsonal on baterako autokontzeptu positiboa izatearen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> -Seme-alabei baldintzarik gabeko onarpen-sentimendua sortzeko gaitasuna. -Autoestimua sustatzeko gaitasuna, komunitate-erantzukizun bat betetzearen aitorpenean oinarrituta.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Komunikazio-jarraibide eraginkorrak	<u>Ezagutzazkoa:</u> familia-bizitzan komunikazioak duen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> zuzen eta konfiantzaz komunikatzeko gaitasuna, balio-gutxitzeak saihestuz eta adingabeak informazioa jakinarazi dezan erraztuz.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Atxikimenduaren sustapena	<u>Ezagutzazkoa:</u> haurren garapenerako atxikimendu-loturak duen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> haurren eskaerei modu sentikorrean eta egonkorrean erantzuteko gaitasuna.	Haurtzaroa	Mikrosistema
Adierazkortasuna eta emozio-erregulazioa	<u>Ezagutzazkoa:</u> haurren eta gazteen garapen emozionalaren garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> emozioak naturaltasunez adieraztea, identifikatzea eta horiei aurre egitea errazten duen giroa sortzeko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Neba-arreben arteko harreman positiboak	<u>Ezagutzazkoa:</u> neba-arreben artean harreman positiboak sortzearen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa:</u> - Interakzio linguistikoa eta neba-arreben arteko imitazioa sustatzeko gaitasuna izatea. -Jeloskortasuna modu egokian gobernatzeko eta lankidetzaren sustatzeko	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema



	<p>gaitasuna izatea.</p> <p>-Seme edo alaba bakoitzari nortasun pertsonalerako berezko espazio bat eskaintzeko gaitasuna izatea.</p>		
Frustrazio optimoa	<p><u>Ezagutzazkoa</u>: garapen psikologikoa errazteko frustrazio txikiek dakartzaten onurak ezagutzea.</p> <p><u>Exekutiboa</u>: haurren jokabidea mugatzeko gaitasuna, bilakaera errazten duen gatazka bat sortuz.</p>	Haurtzaroa	Mikrosistema
Gurasoek kontrol egokia gauzatzea	<p><u>Ezagutzazkoa</u>: gurasoek kontrola gauzatzeko modu egokia ezagutzea, erruduntasuna erabili gabe eta afektuari eutsiz.</p> <p><u>Exekutiboa</u>: nerabeen jokabidea gainbegiratzeko gaitasuna.</p>	Nerabearoa	Mikrosistema Mesosistema
Gatazkak konpontzeko estilo baimendua	<p><u>Ezagutzazkoa</u>: gatazkei modu konstruktiboan aurre egiteko gakoak ezagutzea.</p> <p><u>Exekutiboa</u>: hazkuntza-prozesuan sortzen diren arazoak modu positiboan ebazteko gaitasuna.</p>	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema Mesosistema
Hezkuntza-estilo demokratikoa	<p><u>Ezagutzazkoa</u>: hezkuntza-estiloak ezagutzea: autoritarioa, permisiboa, demokratikoa eta arduragabea.</p> <p><u>Exekutiboa</u>: indukzioa, mugen erabilera eta afektua konbinatzeko gaitasuna, diziplina ez-zigortzailea erabiliz.</p>	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Hezkuntza-koherentzia	<p><u>Ezagutzazkoa</u>: hezkuntza-prozesu guztian kongruentziari eustearen garrantzia ezagutzea.</p> <p><u>Exekutiboa</u>: bi gurasoek antzekoak diren, ekintzarekin kongruenteak diren eta denboran egonkorak diren irizpideak eta hezkuntza-arauak ezartzeko gaitasuna.</p>	Haurtzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Sexu-hezkuntza sustatzea	<p><u>Ezagutzazkoa</u>: gizakien sexu-garapenaren etapak ezagutzea.</p> <p><u>Exekutiboa</u>: sexualitateari buruz informazioa naturaltasunez eta eboluzio-aldiei egokituta transmititzeko gaitasuna.</p>	Haurtzaroa eta nerabearoa	Makrosistema Mikrosistema
Balio etiko unibertsalak transmititzea	<p><u>Ezagutzazkoa</u>: giza balio unibertsalak transmititzearen garrantziari buruz kontzientziatzea.</p> <p><u>Exekutiboa</u>: bizikidetzaren</p>	Haurtzaroa eta nerabearoa	Makrosistema Mikrosistema



	erregulaziorako irizpide etikoak transmititzeko gaitasuna.		
Gizarte-testuingurua eta ingurune fisikoa			
Kalitatezko ordezeko zaintza	<u>Ezagutzazkoa</u> : haurren garapenean ordezeko zaintzak duen eragina ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : ordezeko zaintza egonkor eta estimulatzailerik bat antolatze gaitasuna.	Haurtzarora	Exosistema
Gizarte-laguntzarako sare egonkor eta eraginkorra	<u>Ezagutzazkoa</u> : hazkuntza-prozesuan gizarte-babesa edukitzeko premia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : gizarte-harreman egonkorak eta eraginkorak (familia zabala eta lagunak) mantentzeko gaitasuna.	Haurtzarora eta nerabezarora	Exosistema
Kalitatezko erakunde-baliabideak	<u>Ezagutzazkoa</u> : familia-babeserako erakunde-baliabideak ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : erakunde-baliabide egokiak erabiltzeko eta horiekin harremanetan jartzeko gaitasuna.	Haurtzarora eta nerabezarora	Exosistema Makrosistema
Espazio fisiko egokiak dituen auzoa	<u>Ezagutzazkoa</u> : haurren garapenean ingurune fisikoak duen eragina ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : auzoa segurua eta atsegina eta gizarte-harremanak errazteko egokia hautatzeko gaitasuna.	Haurtzarora eta nerabezarora	Exosistema
Familia-etxebizitza egokia	<u>Ezagutzazkoa</u> : etxebizitzak haurren behar guztiak asetzeak duen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : etxebizitza garbi eta ordenatua edukitzeko eta hainbat jardura egiteko espazioak bereizteko gaitasuna.	Haurtzarora eta nerabezarora	Exosistema
Ikastetxearekiko komunikazio egokia	<u>Ezagutzazkoa</u> : familiaren eta eskolaren arteko harreman arinaren garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : ikastetxearekin harreman positiboak eta egonkorak izateko gaitasuna.	Haurtzarora eta nerabezarora	Mesosistema
Familia-estresik eza	<u>Ezagutzazkoa</u> : estres jarraituak haurren garapenean duen eragin kaltegarria ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : hazkuntzak sortutako estresari positiboki aurre egitea eta haurra estres-egoeren eraginpean ahalik eta gutxien jartzeko gaitasuna.	Haurtzarora eta nerabezarora	Mikrosistema



Hedabideen eraginpeko jarduera ikuskatzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : informazioa hedatzeko bitartekoek adingabeengan duten eragina ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : adingabeak pantailen eraginpean egiten duten denbora ikuskatzeko gaitasuna, jarrera kritikoa eta autoerregulatua sustatuz.	Hautzaroa eta nerabearoa	Exosistema Mikrosistema
Eguneroko bizitzako bizipenen aniztasuna	<u>Ezagutzazkoa</u> : bizipen berriek haurren garapena nola errazten duten ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : eguneroko bizitzan esperientzia berriak antolatze gaitasuna, hala nola museoak bisitatzea, ikuskizunetara joatea edo bidaiatzea.	Hautzaroa eta nerabearoa	Exosistema
Aitaren inplikazioa	<u>Ezagutzazkoa</u> : haurren garapenean aitaren eginkizunak duen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : hazkuntzan aitak hezkuntzan modu aktiboan parte hartze gaitasuna.	Hautzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Gatazkaren eraginpean ahalik eta gutxien egotea	<u>Ezagutzazkoa</u> : haurrak familiako gatazken eraginpean egotearen ondorio kaltegarriak ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : haurrak familiako kideen arteko gatazken adierazpen kaltegarrien eraginpean egon daitezen saihesteko gaitasuna.	Hautzaroa eta nerabearoa	Exosistema
Familian denbora libre partekatzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : denbora libre familiarentzako hurbiltzeko eta aisialdirako une gisa hartzea. <u>Exekutiboa</u> : familiako aisialdi erakargarria antolatze gaitasuna.	Hautzaroa eta nerabearoa	Exosistema Mikrosistema
Zeharkako aldagaiak			
Hezkuntza-malgutasuna	<u>Ezagutzazkoa</u> : haurren adinari eta nortasunari egokitutako estrategiak erabiltzearen garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : adingabeen ezaugarriei egokitutako estilo elkarreragilea baliatzeko gaitasuna.	Hautzaroa eta nerabearoa	Mikrosistema
Garapen psikologikoaren faseak ezagutzea	<u>Ezagutzazkoa</u> : egutegi ebolutiboa ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : garapenaren ohiko bilakaeran alde adierazgarrii hautemateko gaitasuna.	Hautzaroa eta nerabearoa	Makrosistema
Teoria	<u>Ezagutzazkoa</u> : gurasoen garapen	Hautzaroa	Makrosistema



anbientalista inplizituak	psikologikoan duten eragina ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : garapena hobetze aldera hezteko, zuzentzeko eta baliabideak hornitzeko gaitasuna.	eta nerabezaroa	
Entzute aktiboa eta enpatia	<u>Ezagutzazkoa</u> : gizarte-trebetasunen moldaera-garrantzia ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : entzuteko eta besteen lekuan jartzeko gaitasuna sustatzeko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabezaroa	Mikrosistema
Asertibotasuna	<u>Ezagutzazkoa</u> : komunikazio-estiloak ezagutzea: asertiboa, oldarkorra eta pasiboa. <u>Exekutiboa</u> : norbere nahiak eta eskubideak besteenak gutxietsi edo kaltetu gabe adieraztea sustatzeko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabezaroa	Mikrosistema
Interakziorako ohiturak	<u>Ezagutzazkoa</u> : ingurune aurreikusgarri batek eragiten duen barne- segurtasunaren ondorioa ezagutzea. <u>Exekutiboa</u> : arlo guztietan interakziorako jarraibide egonkorrak sortzeko gaitasuna.	Haurtzaroa eta nerabezaroa	Mikrosistema



10. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Aos, S., Lieb, R., Mayfield, J., Miller, M. eta Pennucci, A. (2004). *Benefits and costs of prevention and early intervention programs for youth*. Olympia, WA: Washington State Institute for Public Policy.
- Arranz, E. (2000). Sibling relationships: An educational resource and a way of evaluating the quality of family relationships. *Early Child Development and Care*, 164, 13–28.
- Arranz, E. (2005). Family context and psychological development in early childhood: Educational implications. In O.N. Saracho eta B. Spodek. *Contemporary perspectives on families, communities, and schools for young children* (or. 59–82). Greenwich, Connecticut: Information Age Publishing.
- Arranz, E. (Koord.) (2004). *Familia y desarrollo psicológico*. Madril: Pearson.
- Arranz, E., Artamendi, J., Olabarrieta, F. eta Martín, J. (2002). Family context and theory of mind development. *Early Child Development and Care*, 172, 1, 9–22.
- Arranz, E., Oliva, A., Olabarrieta, F., Martín, J., Manzano, A. eta Richards, M. (2008). Quality of family context or sibling status? Influences on cognitive development. *Early Child Development and Care*, 178, 153–164.
- Arranz, E., Oliva, A., Sánchez, M., Olabarrieta, F. eta Richards, M. (2010). Quality of family context and cognitive development: a cross sectional and longitudinal study. *Journal of Family Studies*, 16, 130–142.
- Arranz, E., Yenes, F., Olabarrieta, F. eta Martín, J. (2001). Relaciones entre hermanos/as y desarrollo psicológico en escolares. *Infancia y Aprendizaje*, 24, 361–377.
- Asmussen K. (2011). *The Evidence-based Parenting Practitioner's handbook*. London: Routledge.
- Barber, B.K. (1996). Parental psychological control: revisiting a neglected construct. *Child Development*, 67, 3296–3319.
- Barnett, R. eta Gareis, K. (2007). Shift work, parenting behaviours, and children's socioemotional wellbeing: A whiting–family study. *Journal of Family Issues*, 28, 727–748.
- Baumrind, D. (1971). Current patterns of parental authority. *Developmental Psychology Monographs*, 4, 1–102.
- Belsky, J. (2006). Early child care and early child development. Major findings of the NICHD study of early child care. *European Journal of Developmental Psychology*, 3, 95–110.
- Bornstein, M.H. (2002). *Handbook of parenting*. 5 Vols. Mahwah, NJ: LEA Publishers.
- Bowlby, J. (1969). *Attachment and loss. Vol. 1: Attachment*. London: Hogarth Press.
- Boyum, L.A. eta Parke R.D. (1995). The Role of Family Emotional Expressiveness in the Development of Children's Social Competence. *Journal of Marriage and the Family*, 57, 593–607.
- Bradley, R.H. eta Corwyn, R.F. (2002). Socioeconomic status and child development. *Annual Review of Psychology*, 53, 371–399.
- Caldwell, B. eta Bradley, R. (1984). *HOME observation for measurement of the environment*. Little Rock, AR.: Centre of Child Development and Education. University of Arkansas at Little Rock.
- Cantón, J., Cortés, M. eta Justicia, D. (2007). *Conflictos entre los padres, divorcio y desarrollo de los hijos*. Madril: Pirámide.



- Conger, K., Conger, R. eta Scaramella, L. (1997). Parents, siblings, psychological control and adolescent adjustment. *Journal of Adolescent Research*, 12, 113-38.
- Costello, E.J., Mustillo, S., Erkanli, A., Keeler, G. eta Angold, A. (2003) Prevalence and development of psychiatric disorders in childhood and adolescence. *Archives of General Psychiatry*, 60(8), 837-844.
- Cutting, A. eta Dunn, J. (1999). Theory of Mind, Emotion Understanding, Language, and Family Background: Individual Differences and Interrelations. *Child Development*, 70, 853–865.
- Denhan, S.A. eta Groutl, L. (1992). Mother's Emotional Expressiveness and Coping: Relations With Preschoolers' Social–Emotional Competence. *Genetic, Social and General Psychology Monographs*, 118, 73–101.
- Dunn, J. (1999). Siblings, Friends, and the development of social understanding. In Collins, W.A. and Laursen, B. (Ed.). *Relationships as developmental contexts. The Minnesota symposia on child psychology*, 30, (or.263–279). Mahwah: LEA publishers.
- Eusko Jaurlaritza (2010a). *EAEko haur eta nerabeen errealtatearen jarraipena egiteko ADIERAZLEEN SISTEMA*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila: Ikuspegiak. (EDE Fundazioaren Gizarte Ikerkuntzarako Zerbitzuak egindako txostena).
- Eusko Jaurlaritza (2010b). *EAEko haur eta nerabeen premia eta eskakizunetara hurbiltzeko ikerketa*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila: Ikuspegiak. (EDE Fundazioaren Gizarte Ikerkuntzarako Zerbitzuak egindako txostena).
- Eusko Jaurlaritza (2011a). *Familiei Laguntzeko Erakunde Arteko III. Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritza
